


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 5 PEZETA

ISRAEL-GO IZARRARI JARRAITUAZ...



«Ara emen margazkilari batek nola ikusi duen aizeneko Gabon gauan Israel-go gaurko izarra eta ikurriña duaren atzetik iges eginda joanek diran host itasatziaren egoera. Ondoingo jokarria bat-batekoan ez da da Israel-irak ibilli duten lekuak. 1948-gan, Bretainia Aundian, zine-film bat egitera zioaztela-ta, ara nundik-atera zituzten lau bonba-egazkin "Beaufighter". Joan dan irailan berriz jakindu zuen nola Fravenknecht injinieruak, urte batean, Suitzatik Israelera frantziad "Mirage III"ren eskemak ogei kuxetan bidali zituela.

LASARTEN, NAZIOARTEKO 15-gn. CROSS Urtarrilaren 25-an.



Nikanor Narbarte jauna (G. B.)

Il onen lenengo egunetan joan zai-ga. Jaunarengana Nikanor Narbarte jauna, Iruñ-go semea bera ta lanean zugurra, langillea ta adoskiro jende-artean ezaugarria ta artua.

Nikanor, etzan zenbaiten antzera, odolkiak jaten bere burua agortzen duten oietakoa, ez. Nikanorreka bazekien bere denbora lanbide obetan xautzen. Euskal jakintza saila, batez ere, landua ta ikasi zuan bere txolartetan.

Or degu lekuko, bere liburu: «Diccionario de Apellidos Vascos» izenekoa. Abizen bakoitzak badu liburuetan bere jatorri ta adieraren berria. Arrai-saillean ere euskal-izen eta itz asko ekartzen dizkigu. Berdin lore, santu-izendegi ta atsotitzetan, nik dakita zenbat xeatsun.

Nikanorren jakiteak bere adimena jaitzen laguntzen zion; baiña etzuan agortzen bere ekia. Gorputzak ere bere salaketak bear dituala, jakia degu gure egunetan. Eta Nikanor sailatzen zuen bizirik kirol-saillean ere. Kirol-zalea henenan, baiña batez ere, euskal-pilota gaitetan. Oso go-goan artua zuan gure joko au bere era guzietan, joko garbiki asi ta esku-jokoraino.

Iruñ-go «Juventud Deportiva Iruñesa» ta «Real Racing Club»-ek, bere sortzailetakoa dute ta bai Gipuzkoako ta bai Espainiako Pelota-Elkartasunak sortzaileen artean bere izena jarria dute.

Euskaldun zua eta oritk gora zekizkian gaztelania, inglesa ta prantzesa izkera. «Profesor Mercantil» zenez ere, izen aundia zuan eta maiz Iruñgo erriaren alde zintzo lan egin zuan diruketa-saillean.

Bego Nikanor Narbarte irundarren eta euskaldun guzian orotza luzean bizil

NUN-ZER

- **ARABA EUSKALDUNAZ**
Larresoro-k 3-gnan.
- **IXOI! AMONA LO DAGO-TA**
López Mendizábal 3-gnan.
- **QUEBEC: IPAR AMERIKETAKO ZURI, BELTZAK**
Santamaría 5-gnan.
- **JOXE MIGEL MAIZ, EUSKAL KORRIKALARI BAT**
Arcelus 10-gnan.
- **HOLANDAKO ELIZ-ARTZANTZA BATZARRA**
Aizaga 11-gnan.
- **ARTE BISIGOTIKOA GIPUZKOAN?**
Lekuona 12-gnan.

EUSKAL IZENAK

Amaika aldiz gure Juzgadueta, sortu izan dira iskanbilla, euskal-izenak bide dirala. Utsa, kontu oiek gaurkoak balira. Aspalditxo asiak ditugu baiña, ta lotsagarria da sarri onelako ezaipak, juzgadueta ditugun arduradun ezjakin batzuegatik sortzea.

Ain zuzen ere, Nafarroako egunkari batean, (Diario de Navarra'n zeat esateko), onelako gertaera bat adierazten zaigu. UNAI euskal-izena, Nafarroan jator-jatorra izanagatik arrotu dana. Idazlea, J. M. Satrustegi, euskaltzain jauna degu ta arek dionetik emen jarriko degu gertaera orren muina.

«Nere lagun batek, —dio Satrustegi jaunak—, seme bat izan berri du. Eguberrietako piñu-salketa giroan gertatu zailo kontu ori. Bataiatzerakoan, «apaizaren» boligrafua artu bear izan zuan, ere k ezin zuan izena paperaren jartzeko. Artan joan zitzaion elizakoa. Gerotxoago, Juzgadura agertzeko ordua etorri zailo ta illean zai egon bear izan du. Bere errian aini errexa zukeen lana, Iruñ'n aspargari egiten zitzaion. Seme bat zuan bakoitzean, txanda-zai egon bear eginkizuna betetzeko. Soldadutza egiterakoan, elizako Bataiburura jo bearik ez izateko, egin bearra baitzuan izena jartze ori. An zegoen juzgaduko eskribientea gauzak mozteko zorrotz».

—Ez. Izen ori ezin ditek jarri-ebaki zuan paper-betetzaileak. Asma zezu beste izenen bat; bestela jai dezu emen.

—Etorri baiño lenago ortan ibilia naiz-erantzun zion aurraren aitzak. Ta semeari UNAI izena jarri nai diot. Obeto esanda: jarria diot.

Kontuak xautzeko, orra iru egun galdu joan-etorritan, beste ainbeste alditan euskal-izena legez jartzeko juzgaduko liburuan. Ta or gelditzen da istilua noiz arterik gabe luzatua. Ta aur batek lege-aterperik ezta, UNAI izena jarri ditelako.

Kontua zaarra degu, ta oztipoak zaaragoak gure errietan. Arritzekoa benetan eta aspaldi kiratsa dariona, kontu auki. Gaiak degu saso ura: jendeak Euskaltzaindiaren oniritzia eskatu bear izaten zuan orduan, euskal-izenen jatorrasuna balezteko. Galderak sarri iristen ziran Euskaltzaindara ta gauzak garbitzeko: Legezko Izendegi bat argitaldu zuen, kondaira zear eta azken-aldi onetan emanak izan diran izenen orritua. Izen oiek obeto ta osoago erabakiak geldituko dira laster gerorako.

«Nere lagunak bazekien Izendegi orren berri, ta bere aldeas sendotzeko, aitatu zion juzgaduko idazleari. Ez ori bakarrik. Azkenengo argitaldutako Izendegiaren alo bat erakutsi zion arduradun ari. Baiña ortarakotxe zegoen paper-betetzaile jakintsua!».

«Bitartean, UNAI euskal-izenak kondaira luzea du Nafarroa zaarrean. Amaikagarren gizaldi ezker, Nafarroako agiritan garbi azaltzen da erabilie. Idazleak ere aitatzen dute sarri. Ala Aita Moret'ek beste antziñako beste askoren artean; eta gaurkoetan Mitxelena jaunak eta abar, zalantzarik gabe agertzen digute. Nafarroako etxe jatorretan ere bizi da oraindik: Unalarena, Uniyenia edo-ta garbi Unala. Luzaiden ikusi nai badezu. Barrankatik Añemendietaraino, or degu izen orren ugaritasuna».

«Ta ezta lenengo aldia, —jarraitzen du Satrusteki adiskideak—, 1964' garren urtean Eibarren beste ainbeste gertatua degu, ilabetetan luzatu zuen ikamika; baiña azkeneko, Juzgaduko arduradunak amor eman zuten, izenaren egokia ontzat emanaz. Gerora ugaltzen ari dira izen ortako mutloak. Ihorik ezaipatu izen ori euskal-belarrientezko gozo izatearen errurik».

«Akats auek usai txarra ematen die juzgadutako ezaipaei, eta ordua da ontan ditugun ez-berdintasunak irizpide batera ekartzeko. Ezpalditxezko gurasok, arduradun bakoitzaren irizpideari begira, beren aurren izenak aukartzeko».

«Len Elizaren iritzia aitatu oi zuen ontariko; baiña Elizak aspaldi utzi zituan, usai txarra botatzen duten oztipo auek. Eta ezin ibiliko gora Elizan izen bat eta Juzgaduaren beste bat ditugula, naspilla ontan».

Satrustegi jaunak, arrazoi bete du ontan alde guzietatik. Eta kontu oiek lurperatzeko ordua degu bein betiko. Euskaltzaindiak edozeini bialtzen dio bere agiria, euskal-izenak juzgaduaren aurrean balezteko. Eska dezakezu bada, nai dezuean, onelako oztoporik deuzuean.

ETAR N.

BERTSO BERRIAK

URTAIN'ENTZAT
IRITZI BATZUK

— 1 —
Nik banekua zenbaitak
ainbeste poesi,
eztakiten askori
ulertu-erazi.
Urtain'en gorabera
bea ditut nasi,
gizon baten baldurrez
ori ezta bizi.

— 2 —
Zuzen sartuak ditu
ogelaleu tiro,
ezagun da almentu
dagola guztio.
Bozeuan eztaiki
jokatzen eztiro,
apenas Urtain'ekin
dagon oso giro.

— 3 —
Urtain'ek jipitokat
zenbat gizon mota,
denbora gutxi barru
ohazpira bota.
Askok ez ustearren
indarrean jota,
pruabak ederki asko
emana dago-ta.

— 4 —
Xelebre itzegiten
askotan errez da,
inbiri bueltaka
baitailu itze-ta.
Orain ikusiko da,
Españi'ko pesta,
Urtain'entzako Canal
txota aña ezta.

— 5 —
Urtain aritz onena,
ta Canal zafaña,
doi-doi jarritako
«Campeón de España»,
ibar'ek ba-darama
aurrera ezaña,
zenbait asko-jakinen
gustora ez baña.

— 6 —
Urtain'ek euskaldunok
nai ginduzko goitu,
bestek ezuten zerbait
doi berak baitu.
Erroma'ta joanda-re
garailu gelditu,
ikusi dute baña
ixtu utzi ditu.

— 7 —
Otsak eztekiela
ezer bozeuan,
Urtain'ekin luzitzen
zaila luzaruan.
Erroma'n izana da
aurten, azaruan,
ai, zeinen une-xamur,
ona pasa duan!

— 8 —
Zenbaiten iritzian
trampa eta tongo,
bestela orren errez
ez ituke joango.
Urtain'ek jotakoak
ba-dakite ondo,
inork esan bearrak
eztute izango.

— 9 —
Ustez jakintsu askok
egindako zopa,
olako gizon bati
nik eztiot opa.
Danez ere bandera
ta urrezko kopa,
aurki jartzen danean
«Campeón de Europa».

— 10 —
Probatu omen ditu
seme aula jalo,
diran gauzak esaten
jardungo natzalo.
Beti zail da ibiltzen
ziur eta laio,
noizpait makurtutzea
toketuko zailo.

— 11 —
Amarengandik etzan
seme aula jalo,
diran gauzak esaten
jardungo natzalo.
Beti zail da ibiltzen
ziur eta laio,
noizpait makurtutzea
toketuko zailo.

— 12 —
Oraindik ba-neukake
zer esana pranko,
baña utziko ditut
beste baterako.
Euskaldun bat sortu da
kondairerako,
edozein txaladanekin
ez al dute joko.

SEGUNDO KALONGE — DONOSTI

NERE BORDATXOTIK

Erantzuna «ZERUKO ARGIA'»
gogo onez ikusiko lukela-ta, Agi-
rre'tar K. jaunak, Gazteiz'tik (Vi-
toria) lerru aurretik bialtzen diz-
kit: Eizemendi jaunak:

«ZERUKO ARGIA'» idazten
dutenen artean zu zera nik on-
gien ulertzen dedana. Oso garbi
ta ozerean nasketarik gabe egiten
dezu-lako.

Oso eginkizun sarigarria zurea.
Eskutuen omen elburua auzi de-
zu. Nere kezka baten auri adie-
ratzeko bi lerro basterik ezti-
tut bialtzen.

Aspaldidanik euskeraz ikasia
nauzu, ta egia esan, gañontzeko
beste euskaldunekin ondo xamar
ulertzen naiz. Baita edozein eus-
kalkitan irakurzen ere, naiz gi-
psukoeraz, naiz bizkariaraz izan.

Lapurdiaraz ez ain ongi.

Au guzla «zuko» erabilpena
jarrailu ezkeru.
Bestela, «ikako» alkarriketan
aritzeko ez naiz gai. Egin esan ne-
zake ezer ulertzen ezte-danik, ba-
ña gauzik xamurren bakarrak.

«Ikako» aditza (verbo) oso
zeatz eta neurritsua izanik, biga-
rren onek, «ikako» erabilketak,
lenbiziok omandako arau, lege
ta ofiziar danak auzten ditut er-
rotik, eta au ikasteko oztipo auz-
dia, noski.

Geura arrigarria benetan.
Euskeraz ikasten duten gizenak
«zuka» itzegiteko gai diralarik,
ezin esan ditek «ika» berdin
moladetan diranik.

Nik ezte «zuka» erabilketaren
aurkako ezer; oso itzal eta eres-
petu aundiko izakia deritzat. Ba-
ña, bigarren au, euskaldunagoa,
jatorragoa ote dan nago.

Eztango ondo liburu urritasuna-
gatik, ikasbide bakantenasunagatik
galtza.
Askok, zorionez, erabiltzen du-
te, baña guk, euskaldun berriok
ezin dezakegu beste orrenbeste
egin. Epaitegu ikasteko egokio-
rarik.

Nik ezte azaleatik ikasi nai, sa-
konki ta zeatz aztertu baizik.
Onetxengatik eskatzen det zu-
re iritzia. En zar ollu (konteju)
ematen dizkidatuz. Aurrez eske-
rrak emanaz agurten zaitut.

Txalorik beroenak zuri.
Zu bezelako euskaldun berri
asko bear genituzke. Artaraka ez

genduke urrutli euskeraren be-
netzako berpizkunda.

«Zukako» izakia oso ederra de-
gu euskaldunok. Itzal eta eres-
petu aundiko moldea, zuk egoki
dionuez.

Alaro, «ikako» mintza moldea
galtzea, lastimagarria benetan!
Liburutan, ikas-gaietan, ondo
dionuez, eztegu aukera gelegi-
rik, zorigitzez.

Zu, Zarautz'en edo Azpeiti'n bi-
zi baziña, oso denbora laburrean
trebetuko ziñake «ikako» izakian.

Senide artean, lagun artean
eta konpianzako jende artean,
«ika» mintzatzen gera gu beti. Ala
ikasi gendun txikitandik, eta al-
xe jarraltzen degu. «Ikako» min-
tza moldea erabat galdu ta «zu-
kako» erekin, bakarrak geldituko
bagiña, euskal arabolari adarrik
sendonetako bat galtzea bezela
joko nuke.

Zuk euskaldun berri maite
orrek, eztakazu inorako lotsik
darabilkizun «zuka» ederrarekin,
baña zure euskal arrobia asko
aberastuko zenduke «ika» trebe-
tzeko modurik bazendu.

Norbait edo norbaitzuk ekingo
al diote alakoren batean «ikako»
izkerari liburutan toki ematen.
On aundia egingo luteke arazo
au benetan ar lezatekenak.

Bienbitarte, Gazteiz'en bizi
zeralarik, eztegu erretasun ge-
egirik izango nagusitasun ori es-
kuratzeko.

Alkarren urrean bizi bagiña, ez-
tet uste luzaroko lana izango nu-
kenik zure naia betetzen. «Zuka»
ain egoki moladetan dana, bereala
moladituko litzake «ika» ere.

Euskeraren mende duden lagu-
nak bear dituzu ortarako. Ta...
inotiz «ikako» libururik inguraten
badezu ere, egillak jakin deza-
la zertan ari dan; izkuntza on-
do menderatzen dugu egillia izan
delilla.

Beste gañontzean, aurreratu
berraren atzeraka egingo zendu-
ke. Galtzi ta oker ikastea baño
lenean gelditzea otea baita.

Danengatik berdin esaterik ez-
padago ere, nere lantxoak bezin
errez konprendituko dituzu «ZE-
RUKO ARGIA'ko» beste lan ba-
tzuk.

Ba-dira geiogo ere, zorionez,
«garbi ta ezerean nasketarik ga-
be» idazten dutenak.

Au da gañera bide bakarra
euskerak bururik jasotzerik nai
badegu.

Denbora alperrik galtzen ari
gera jokabide au artu ezik.
Alfabetatze kanpafia egiazab-
tean eta bestean, erriak euske-
raz irakurtzen eta idazten ezta-
kiela esanaz, eta bestaldekik, ain
ez-jakiña dala alortzen degun
erri orri, inon diran lanik astu-
nen, gaitzen eta zailleen eske-
intzen ari gera.

Ez alperrik!
Zeliek irakurtzeko?

Oraindik oraintsu, «ZERUKO
ARGIA'» au zion Jose Artetxe
idazle ezagunak: «Gure erriak ez
omen daki irakurtzen.

Eskritoreak ba al dakigu erriak
itzegiteko duen eran itzegtien?»
Galdere auzera bear egin izan
diot sarri nere buruari.

Gure erriak inork uste du ba-
ño gelago irakurtzen du gustoko
janaria ematen zaiolanean, eta ira-
kurtzen dana errez konprenditzen
dunear.

Urteak dira Donosti'ko peri-
ditu batean eguneroko euskeraz
idazten ari naizela. Arriturik na-
go ainbat irakurle itatez.

Gutxien pentsatzen nun per-
sonak irakurtzen dute eguneroko-
eguneroko ain gutxi balio du ne-
re euskal zaitxioa.

Euskerazko lau lerro pasateko
len egungo kapaz izan ezte-
nak, eta orain erderazko zati be-
zin errez konprenditzen dutenak.

Gu, idazleok, edo idazle izene-
kuok gera sarritan pekatari, ta
ez erria.

Egun bakar batzutan gertan
izan zait erdera utsarekin nere
sail guzia betetzea; tokirik ezta
euskeraz kanpaz uztea.
Alakorik danean dei asko i-
zen ditut telefonoz, zer gertatu
dan galdetuz.

Au bai dala pozgarria, pozga-
rririk ezer bada.

Inork uste baño askoz ugaria-
goak dira goizero-goiz, euskal
sailaren zai daudenak.

Erria, askotan, ba-da guk idaz-
leok merezi anaioa.

Erri orri erretasun guziak
eman bearrean, gu ari gera inon
diran zailtasunak jartzen.

Gero erri orrek (arrazoi auz-
diz) atzea ematen digu; gurekin
ezte ezer jakin nai.

Euskeraren itxurik ba al du,
izan ere, gaurko irakurgai asko-
tan ikusten degunak?

Gaurko zenbait idazleren eus-
kera, euskeraz baldin bada, ni gri-
egoa naiz, gutxienez. Nik ikasi
nun euskeraz ezte oienen antzik
eta tankerik ere.

Erderaz pentsatu, erderaz aus-
nartu, «euskeraz izeneko» batera
itzuli, ta tranilik aso gelditzen
dira, illargia lenengo zapaldu
balute bezela.

Kejatsa ta negartu agertzen di-
ra, ori bai, erriak euskeraz ira-
kurtzen eztekiela esanaz.


«Tontoa dek errotaria», buru
dana lertuta len baño okerrago
gelditzen dala jakinda irakurtzen
segitzeko.

Arrazoi dezu, Joxe.

Gu gera erriari nola eskribitu
eztekiunak; gu gera erria eus-
kerarekin nazkatuta erderaren
magalera bialtzen ari gemanak.

Zentuz jokatzen asten ezpene-
ra, ba-dakit zer gertatuko za-
gun. Arralak aldegindakoan as-
ko gera sareak botatzen, bururik
gabeko arantzaleak bezela. Al-
perrikako soñeko urraketak izan-
go dira orduan.

Andik aurrera ez ezer kontatu
euskerarekin. Consumatum est!

Sony da
ametsaren izenaariñena, telebistarik
eskurakoiena
(beatz batez eustekoa)

SONY edozein tokirako da
SONY'k 4 kilotardi pixatzen ditu
SONY 9'ko argi-laukiduna
SONY iru senti-giltzaduna
SONY aurrez-aurrezko abots geitzaileiduna
SONY etxeko tximist-indarrez eta
bateriz erabiltzekoa
SONY'k lau izki ditu:

SONY

Donostia'ko ordezkari: A. Mendizábal Obanos - Peña y Gofí, 5 - Urrut' 10811-Bilbo'ko ordezkari: J. M. Lara - Fica 8 - Urrut' 239642
División Audiovisual: Irrati, telebista, magneto-soñitu ta magnetoikusurikak. División Sobax: Elektro kontatzailak eskurakoiak.

Barani

"Le Monde", informazioan gudari

«LE MONDE». Paris-ko periodikua ospetsuak, bote berriak ditu sortu izan zeneko ogoitabat urte. Ain zuzen, 1969-XII-19-an, ospatu ditu zilarrezko eztaia, Versailles-ko Bilkura-Jauregian jaldai berealdiko emanak.

Irazaille eta gidari, H. Beuve-Meery zen oraino. Gaurdanik gidaritza, J. Fauvet-en eskutara igaro da. Maixuak jarraitzeala eta lankide onenari eskeiñi dio oraino berak, goratik, eraman duan albistalari zuzenaren zuri argitua. Esku onetara pasa bide da; J. auvet es baidak bakarrik izparringian ongi aditua, baizik eta batipat, «LE MONDE»-k sortu al izan duan pentsaerari eta egitaranetan ari eta bitzuta.

Izparringi onek mundu izena eta fama. Zenbakiak, egunero, 475.000 inguru banatzen bide ditu. Langileak, periodiko bat sortzeko bear diren anbesten eratakoak, ez dira 900-dik urrutli.

Goi-mailako idazleak ditu, edozein gaitan. Egikera trinkoa du, bainan baita tajukoa ere. Funtsez aberats, aberatsik bada, politika, ekonomia, gizarie, erlijio, jantzia, literatura, antze-lan eta garuko gizonak nai eta bear dituen arazo oroekiko argiemanetan.

Mundu guziko gobernariek irakurten omen dute eta aztertzen, egiazale eta egiali baidak, oinarriak agiri eta jakinbide zuzenaren errotuak ditutako Gure Aita Santu, Paulo VI-ri, goizeko malean ipintzen omen diote. Paris-ko «Institut des Sciences Politiques» ikasguru, «LE MONDE» ezinbesteko albiste iturritzat daukate irakasleak eta orregetatik egunero periodikua irakurri eta aztertzea ailekaten omen dituzte irakasleak. «Le Monde»-rik ez balitz, sortu bearko omen litzake, zion idazle ezagun batek.

Irakurleak albiste zuzenen bidez ezitza, izan zan Hubert Beuve-Merry, irazaille eta gidariak, izparringiarri ezarri zion egitekoa. Amaika amarru eta eraso burukatu behar izan ditu, bere bideari, saldukeriari eta konsepkontari gabe, libre eta jabe jarraiki al izatelo. Ez inor xistimaz kritikatu, ez etare itxuan babestu; ez erori ideologiaren esparru itxian, are gutxiago talde ekonomikuen serbitzuan. Iku ar gora eta zintzo jaso eta gordetzen saia dalako, jasan bear izan ditu eta guztietako erasoak. Ez da margorik egotzi ez diotenik; xurkeriei ez antzuzun egiazale eta ekantz erasotzen irauten alegiduz, burutu al izan du Beuve-Merry 1944-ngo urtean bere buruari ezarri zion elburu eta xede noblen.

«Albiste garbi eta egiazkoak alik azkarren eta osoen irakurleei ematen», ara «Le Monde»-ren xedea. «Gure burubidea oten daita, dio Jean Schwob idazleak; gure egitekoa erriari etenik gabeko egibidean laguntzea da. Etekin gabeko ezibidearen adar nagusienetakoak, alabaia, berriematea da, albistean birtate errealdidearen moimen-duak eta indar egiazleak jarraikiro azaltzen salatuak. Paulo VI-k, berri, onela osotuko du idea berbera: «Ziogo gure egiazko demokraziarik, erriekide bidezko informazioz jakien gaitzen jarri gabe».

«Le Monde» bestalde izparringi konpafiia da. Lantegi erakunde aldeti k ere bide berriak urratu ditu, guregungo arloei erantzun jatorri asmatzen salatu. Periodiko langileak, (idazle, empleatu, kuadru...) Lankide Batza osotzen dute izparringiarren birtizan, denek parte ar dezaten. Jagaboa, langille denena denez, lantegiaren araudia demokratikoa eta lana, izparringintza, alegia oroen futor jatorri bilakutzen bide da.

Euskal-errian asko gera «LE MONDE» irakurri eta maite dugunok. Bere orrialdetan aurkitu dugu, sarritan, gure ezibidean argia; jakin minean bazka; nazioako eta nazioenarteko gorabera nastuetan azterbide; demokraziaren alde etsi gabe jarraitzeko atsa; gure albistalari-za apalean aurrera egiteko oildarra.

Zorionak opa dizkitzugu zuri «Le Monde», guk euskal asteakari apal onek, guk ainbeste ailtatzen duzun Euskal-Erriak. Munduan eman eta zabalduko duzula fruitua, asberri duzun bigarren ora onetan, badugu itxaropen.

IXO! AMONA LO DAGO-TA

Argentina'ko erri aundi baten izena Pehujá da. Orain urte batzuek dala, gure erriak euskaldun asko alde aetara joan ziran. Beren artean senar-emazte batzuek, seme-alabatzuekin ere bide orri eraman zuten. Ezin bada bakarrik etxean amona xarra utzi eta au ere urrutiko toki aetara joan zan seme-alabak eta illoba txikiak baten baten egin da.

Pehujá inguruko erriko batean bizi ziran, eta amona xarra etxean beti egoten zan, bere illoba txikiak jostatzen ziran bitartean. Baina oek batzuetan ondo alkatzen ziran, besteetan beren artean asarretzen ziran esanaz: «Jostallu orri nerea da— eta beste batek: —ez jauna, nerea da eta zuk autsi didazu—. Eta orrela askotan zalaparta eta itillu ugari egiten zuten, amonatzat gaxoa txoko baten eserita ixil, ixilik zegoen bitartean. Alperrik ziran ama eta aitaren asarrek umeai xillago itz egitea eskatzen ziotenean, amona gaxoa ez nagibeteko.

Eta orrela egun batean pakean eta besteetan asarretzen etxe artan beti ardallean zebiltzan.

Bitartean amona gaxoa eta oso zartu zan eta gutxiena ueste zuten, il egin zan. Bera orrela ikustean alaba eta iza negarrez asi ziran, asarreturik umeai esanaz: Ixol Amona lo dago-ta.

Gaurko egunean Pehujá'ko ilobi-tergik dabilan euskaldunak; ilobi baten aurretan dagon arrian itz oek irakurtzen diu: «Ixol Amona lo dago-ta».

Eta euskaldun guzikiak aurretik igarotzen eta itz oek irakurtzen burua makurtu eta Agur Miren bat bederik amona xar arri eskeintzen diote.

Eman ere gure edrialdean ume aen antzera beren arteko etzabaidan burrukan bezela dabilta utso-gatik, guziki alkatua gure euskalaren alde egin bearteen.

Egia esatera, nere gogoa ez zan gaur

onefraz ezer esatea. Samiñez betetzen ninduen orrelako naspillak. Baian burura etorri zait nere lagun batek, aspaldi esan ziran gertaera bat. Urnietá'ko errian apaiz jaun bizkor bat zuten, eta egun batean Ernani'tik Urnietá'ra oñez zijoala, basarritar bat aldamenaratu zitzaion esanaz: —Apaiz jauna, etxe aldera? Orrela abitu gera beintzat, apaizak erantzun zion.

Eta apaizak galdetzen dio basarritarrari: Aurten beintzat, belarra ugari izango dezute—.

—Bai jauna—.

—Eta beik esnea ugari ematen al dizute?

—Bai jauna—.

Eta onan, apaizak basarritarra zirikatzeko asmatan, gezurrezko galdere bat egin zion. Eta basarritarra apaizari zion begirapenaz ez ukatzeko, esan zion: Bai... bai, jauna.

Eta orduan apaizak asarreturik esan zion:

—Ez, jauna. Gizon dan gizonak, bear danean ez, jauna, esan bear dik.

Guk ere gaurko egunean, zoritxarrez, orrelako okerrak ikusten ditugu, eta bein edo beste etorri zaizkidanean galdeka, orrelako izki edo «letra» bat ipiñi bear dala ala ez galdetzen digutenean, erantzuten degu Urnietá'ko apaiz jaunaren antzera: Ez, jauna. Garaia danean: Ez-jauna, esan bear dalako.

Bein batean bi artzi ardi-zaintzan zeudela, urrutira laisterka zijoan zakur bat ikusi omen zuten: —Erbi-zakurre dek orri— esan zuan batek, eta besteak orduan, —ez motell, eper-zakurra dek.

Eta beren artean etzabaidan ari ziran bitartean, oso bat ardiatean sartu aitzaiten, batzuek il eta besteak zaurituz.

Guri ere orri bera gertatzen ari zaigu, etzabaidan ari geran bitartean gure ama xarra, gure amona euskera, erri askotan ixiltzen ari zaigu, eta bestetan berriz, eta auzan da txarrena, baita iltzen ere!

Bear ez dan etzabaida zalea ez naiz, eta gogora datorrigu beste gertaera bat. Katolikoak gure erri-burua Erroma degun bezela, arabitarak Meka izena duena beren erri-buru dute. Eta zabaldia aoz-ao esera au erabiltzen da: —Bidean ateratzen zaizkan zatuen zaunkalariak, arrika ematen galditzen dala, beñere Meka'ra ez dala irixten—.

Guk ere bide bati bakarrik jarraitu bear diogu aldi txikiena ere galdu gabe. Norbaitetik bidean arri-korrek iripintzen ba dizkigu ere, utzi alde batera eta gogoratu dezagun Pehujá'ko ilobi-tergik agertzen dala:

Ixol! Amona lo dago-ta.

LOPEZ-MENDIALDAR
IXAKA'K

ARABA EUSKALDUNAK

Hau erantzun dit lagun batek orain dala egun batzuk: «Ya sabes que él es alavés, y que en Alava hace siglos que se ha perdido hasta el recuerdo del vasco». Hau esan didana euskaltzale xamarra izanik, eta arabarra, zer pentsa?

Herrien oroimena laburra da, batez ere bertakoen kondaira eginkizun dagoenean.

Kardaberatz emaniararren lekotasuna bururatu zait lehenik (ikus «Euskeraren Berri Onak», 73); Kardaberatz'ek jakinarazten baitu Araba'n «euskaraz itzegitea pекaturik aundiena balitz bezala, giza arteik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo señaiekin, azote ta kastigukin, eragotzi nai dute». Hau dala bide, Araba'ko «ergoien» euskaldunak (herrixko txiki heriek «ergoienak» ziran arabarrien hizkuntzan) eraztunaren zigordide erabili zan beraz, eta euskera garai hartantxe, XVIII-gn. mendean alegia, eruz gaitzen ari zala idatzi zigun gipuzkoar josu-lagunak. Erdaldunteez, beraz, ez zan gozo eta legunkil obratu.

Landazuri arabarrak bere kondairan dionez Oka'ko Nanklars (Gazteiz'tik hegaldenean, beraz) euskeraz ari zan XVIII-gn. mendeko hasieran.

Aiala eta Okendo'ko haranetan, euskeraz ari ziran baserritarrik gehienak XIX-gn. mendean; eta azken euskaldunak XX-gn. mendeko hasieran suntsitu ziran. Garai berean suntsitu da gure hizkuntza, Bizkaiak'iri dagokionez esate baterako, Barakaldo'n, Galdames'en eta Gueñes'en; hauetan jaiotako azken euskaldun agureak gure mendeko hasieran hil baitziran.

Legutio'n (Villarreal) eta Aramallo'n gaur bertan ere (bigarrenean batez ere) euskera da baserritarren hizkuntza.

Orain dala 90 urte Velasco'k jakinarazten zigunez, Zigotia'n, Lezama'n Baranbio'n eta Laudio'n, gehiago ziran bertako euskaldunak, erdaldunak baino, nahiz gazteak erderaz hasiak. Beste 13 herrian euskaldunak ez ziran arras itzali (hauen artean ondokoak: Amurrio, Asparrena, Barandina, Bebera, Ganboa, Okendo, Ubarrundia, Urkubatzal, San Millan, Valdegobia bera...).

Bonaparte'k erakitako mapak ondorio beretara garamazki; eta lekotasun berbera eman zion Azkue'k Araba'ko euskera aztertut zuelarik: Gipuzkoa'ko muga guzian topatu baitzuen euskaldunak. Bere adizteren azterketa osatzeko, Elosu'n, Gantza'ga'n, Legutio'n, Olaeta'n, Urrunaga'n eta Zigotia'n izan zituen laguntzaileak (1925-ean osatu zuen lana).

Gogoangarria da ere, honi buruz, Jose Mikel Barandiaran'ek ezagutarazi digun izkribua, 1787-ren ondokoak dalako: «Hablan el idioma vascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gambia, los más de la de Salvatierra, los de Mondragón, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela (de Alava), en los cuales a lo menos serían útiles los Curas de concurso abierto que ignorasen este idioma». Azkeneko bi mende hauetan aldatu da, beraz, Araba'ko hizkera; ez Harri-Aroan. Bi mende gehiegi da heln batean; eta oso gutxi ere beste batean.

Tamala da, ordea, Kondaira-xehetasun hauek baita geure artean ere honen harrigarri gertatzea.

LARRESORO

GAURKO EUSKAL-EMAKUMEAK BI EZ EMATEN DITU

A. AGIRRETXEK

Gure Euskalerriko inguru guzietan entzuten dana: Baserrietako maiorazgoak mutizatzen ari zaizkigu, ezkontzeko esperantzarik gabe; neskatik ez dago baserriaren ezkondu nai duanik.

Eta, zoritxarrez, egi asko dago esan oietan. Alako erri artan iuruegi mutituz daukate eta neskatik ez batera ez. Aspalditxotik angonekaskatz kale-bidea artu zuten; lana, jolasa, lagunak ta dena kalean biltatu nararekin.

Zergatik eta nundik baserriaren ondandemdi au datorren jakin eta pentsatu egin bear genduke.

Baserriko mutillaren kultura edo jakituria eskaza dalako ote da? Ez orixe. Kaleko beste mutillak ala badira baserriko maiorazgo oietatik asko. Gainera, duarrik gabe, maiorazgo orrekin ezkonduko liraken neskatxak badira, ezkontza orri bera kalera egingo balitz.

Baserria urrutli edo mendian dagolako ote da? Ezta. Zenbait baserrikan kamioa ta automobila ta etxe inguru ederra badituzte. Alaz gutzit ere, maiorazgoa...bakarrik.

Baserrian egin bear dan eskulanagatik ote da? Ezta orri ere. Kalean diran lan asko ez dira txukunagoak, ez arinagoak ta ez ederragoak. Gogoratu goizeko seiartean sortzen diran erreleboak eta zenbait fabriketan egin bear izaten diran lan askoren zikiña, usaia eta aspergarritasuna.

Gure gaürko emakumeak baserriari dala maitasunez beste nuntai biltatu bear dala, ueste degu.

1. Begira, lenengotik, baserriari dijoan andrearen bakardadea. Lagunarte aundian oitutako neskatxak inoñaz ere maite ezin duan bakardadea. Nola edo alo arindu bear litzen bakardade izugarria. Baserriko andreak senarrarekin bat-eginak ikusi nai gertuzke bal etxeko arazotetan ta bai etxetik kanpoko ibildaldietan. Bat eginago baita ere auzoko beste etxekoandreakin.

2. Nekazari-errietan baserriko etxekoandreak, errialdetako goraberek zuzendu-bear oten, sartuago ta eusku-bidetsuago ikusi bear gertuzke. Ez dira neska-be

tzuk. Eta erri artan sortzen diran zenbait problema emakume auen itritzi ta alkatetako jarraiekirien konpondu bear dira. Zergatik gure erriak ainbeste zokoratu dituzte beren etxekoandreak? Auen alkatasunak sortu bear dira eta zor zaien maila ta gizaritako influentzia kendu egin diegu, bai, ta len bait-len orri dena itzuli egin bear zale.

3. Kaleko bizimodu ta lanarekin baño egokiago osatu leike emakume, baserrian ondo eraratuako lanarekin. Ez lan gogorregirik, ez lan desegokirik emakumearentzat. Baserriko andreak bere burua ta adimena azieratzeko millaka okasio ditu bere etxe inguruan; pentsamendu aundietan ibiltzeko astia ta gauzak daramazki bere bizitzan; etxe ta etxe-inguruko baratz, atari, lore, sukalde, animalitxo ta bizi-eraketak millaka iniatibaz aberastu lezaiokete irudimena.

Orretzaz gainera, lan ezberdin askotan jokatu bear izaten dualako, bere pertsonatua osatzeko bide txit egokian dogala baserriko etxekoandrea, ezin ukatu. Mendiak, loreak, lurarekiko artu-emanak, izadi garbiarekin tratatu bearrak... emakume onik kultura bereki bat eman egingo diote.

Baña, ortarako, presteaera aundi bat bear. Gorpuzte, buruz eta espirituz baserriko birtiza era-berritu batekin gure emakumeak gustatu ditzeten.

Presteera onik nork emango? Baserriak kanpo bizi geranok, ezin. Baserrian bokoan on eta atseginagari bat arkitu duten oietak —ta obe euren ere emakumeak baldin badira— egin bearko lurren lana da orri. Guri ez ligukete sinistuko. Emen ere birtizazko testimonio bat bear. Eta badira gure artean batzuen batzuk.

Eta asiko al gera gure gaürko euskal-emakumeak dioten bigarren EZ orri ailtatzen? Monjatzari EZ, alegia.

Luzegi joango litzake gaur. Eta arazo orri urrengo GOIZ ARGIRAKO utzi egingo degu.

(«Goiz Argi»'tik jasoa)

Zeruko Argia

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Aragoko Kapuzinok argitaratua

(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA:

Oquendo, 22 Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Barruan ... 215 pezeta

Korreo batasunetako errietan. 265

Azerrietako beste errietan ... 285

Aidez. Aurrez galdetu.

Salmentan (Ale bakoitza) ... 5 pezeta

EUROPA, ORAMAITIK

LATERRI BARRITZE

Zer da Europa batua? ta, zerk egin leike erri barriak bertan sartzea orren garesti? Orretan dabilenak eta orren zain dagon erriak iur erara ulertzen daue lenego galdera ori. Bigarrenatza ez dauksue oin-dio ezer garbiri agertu. Norentzat litzake garesti, errentzat ala gaur-ko lantentzat?

Erri danok, eskubide bardiñegaz, laterrri bakar barri orren barruan izan ezker, ez dauke batek beste- bako ezer geyago ordaintzerik, eta sartu aurretik besteak baiño txi-roagoa denari, beste aberatsagoen ugaritasuna berez eta erraz berega-na letorkio. Estaduen diru-kontuak izango lirakela gaitzailte? Ez dauksa gaitze orrek batasunerako asmorik erriari galdu eragingo. Ondatu bea-ko diran laterrri erakundeak ez dira erriaren oberoan gaitzailte-eta. Atzaz gaitzailtzen, erregotza-burukaldi-gaitz- tik sortu diran laterrriak, gaitz- ez-gaitz, ardira gutxi erriari bide osat- sungarriagorri ikusi ba'dau.

IRU ASMO, BAT NAGUSI

Lenengo galderan dago ba zergai- ti onen erantzuna.

Iru eratako Europa ikusi daitegu europar gizonean artean. Bata erri-arena, naita ez autarkirik, ez itzik, ez entzulerik izan opila oratzen da- bilazkan mayan. Ta erriek gura dauen Europa ori, askatasunaren bultzaz- gatz aurrera doan ori, erri gutzien bardintasunean osotuko da Europa dugu.

Beste biak, laterrien buru agiri di- ran opitgilleenak dira. Bata Londres aldetik bultzaka darabilena, ta ara zer dan; Europa zabal-iriki bat, onen nortasunetik barik, alkatze lotuegi- rik barik, bestera, ekonomiki-bazkide- tzatik bakarrik letorkion indarra- gatz, laterrri bakoitzak bere almena gelit- ta agertu ludiaren gurrean. Ta au ez da erriak ames dauen Europa oso- ta; Diru lagundi aberats bat bai- fio.

Besteia, Paris'ek eskeintzen dau- kuna; Europa'n gaur diran laterrien alkatze zuta, gobernuen mailan, ba- koitze berean osorik, ta alkatze an- teko onetatik datorran indar gelit- ze orragatz, beste laterriangandik alden- duta arpegi emoten bizi eta bakoiz- taren (berea geyen bat) politika bideak beste oreingadik albora jo- katu.

TXAKURRA TA KATUA

Orra ba, Londres'ek, ludiaren au- rrean indartsu agertzeko, Europa bear dau; Paris'ek, ludiaren eta Lon- dres'en aurrean, Europa batua- ren buru dala erakutsi. Ez batak ta ez besteak, ez daua gaurko euren nortas- una, laterrri nortasuna, ezetan gal- tzerik nai, ta or konpon erriren, euren menpeko erriren naita, ohea ta itxaropena.

Ala-ta-bere, erriak, bere askotasu- na lagun bakara dala — askoren gure- gurea nagusi — beste opitgile be- rekolen zirkifak utsean lagatzen doa ta Europa, nekez eta iholiz atzeraka- daren bat egin arren, bere ezinbe- tezko mugara doa indartsu: Europa osotura, gizona, sendia ta erriak ez- ke eta besteak-bestearen osotuko dau- enera.

BEIZTEGI'K

Tomás Eizmendi'ren
Jatetxea

Zumai erriatik metro gutxira, ibai ertzean par-iriz, etxe polit bat zure zai dago euskal kutsu zoragarri. Arrai, barazki, aragi eder; nai dan aukera Janariz, jatetxe au bein probatzen (duna

laister azaltzen da berriz.

—:—

RESTAURANTE TOMÁS EIZMENDI

Curva de «Chiqui-erdi»

Tel. 86 13 90 ZUMAYA

Alkartasu-
naren alde

¿Estaduaq baserritarrakin egiten dabena, ¿jokabide zuzena eta da?

Ona emen adibide batzuk: Banco Mundial izeneko orrek Espanako Go- bernuari aurreratu deutzoz 1.750 mil- loe peseta.

Diru guzti ori izango da bei-okelea ta esnea ugaritzeko. Estaduaq ¿ze- lan bananduko dau diru pillo ori?

Milla baserritarren artean: 780 Andaluzian txalak azten egingo dabe ta 280 Santander'en esnera joko da- be.

Asturias'ek ta Galiziak keja sar- tu dabe, eurak laguntzun deute, probintzi orreikako baserriak txikie- giak dirala kompetentzial eusteko ta olako baserriak ez dabela laguntza- rik merezi.

Beste adibide bat: Baserri'makiña batzuk erosteko, Estaduaq makiña- ren baliotik euneko 10 utsean emo- ten ditu, baserri solteak ba'dira. Ba- serritar batzuk alkatzen ba'dira ta danen artean baserri aundia egiten

ba'dabe, Estaduaq euneko 30 emo- ten dau.

Ta ona emen irugarren adibidea: Aurtengo parteen lege barri bat agertu da. Lege ori da baso-bideai laguntzeko. Esate baterako, piñadiak ateratzeko baso bide edo postak egiten edo berritatzeten dituenak, orre- tan egin diran gastuetatik euneko 25 Estaduaq emongo deute. Baña kastua 25.000 pesetatik berakoa ba' da, ez dago laguntzarik.

¿Zergatik ori? Arboladi txikiegia ez deuslako lagundu nai. Piñadi txikien jaubeak bideak egiteko alkar- tzen ba'dira, orduan laguntza izan- go dabe.

Esan leike, Estadua be makalai la- gundun bearrean, baserritar gogorai laguntzen diarduala, ¿jokabide ori zuzena eta da? Mundu gutzian dabi- len martxia ikusita, jokabide zue- na dala esan bear. Baserri txikiegia eztaukie zeregiñik Europar, ezta Eus- kalerrian. Orregatik aurrera jarrai- tzeakotan, baserriak bide bat baño eztaukie: bata bestiaz alkatu.

PIÑADIAK ETA
SAGASTIAK

Piñadiak euren bentajak ditue ta sagastia- k be bai. Jokabide zuzena, piñadiak leku batzuetan ta sagastia- k beste batzuetan ipintea da. Bizkaian urtero atara leikez 500.000 metro kubiko piñadietatik ta 1.100 baso-langi- llek piñadietatik bizi-bidea ateratzen dabe. Joraleetan bakarrik urtean 100 milloz zabaltzen dira baso-langilleen artean.

Ikusten denez, piñadiak bentaja aundiak dakaz Bizkaira.

¿Ta sagastia, ser? Ezin leike esan, piñadiak baño geiago emoten dabe- la sagastia. Paraje batzuetan ezin eke sagastirik ipini, baña piñua sartu leike.

Sagastia ipintekotan lur onean ipini bear da. Lur txarrean ipintekotan piñua ipintea, oha. Baña terreno onean ¿zenbat emon leike sagastia? Aurrerako baten Logroñoan izan ziranak sagasti arrigarriak ikusi zi- tuten. Sall balen egozan go landara, txikiak eurak. Landara orreik emon eben konformidadean, hetarea batek 100.000 kilo emongo zituan. Agirian dago, sagasti guztiak ezin leikiela ainbeste emon. Izan be Logroñoko sailla apartezkoa zam. Baña bee zamarretik jota, hetarean 20.000 kilo emen be- artu ezinik eztago. Ta artzen dana garau garbia ta ederra izaten da.

Sagastia bentaja bat dauko: bear dan lez gobernu ezker, lurraren irabazia aundia dala. Piñadi-lurrak emoten dabena baño aundiagoa. Ta ga- nera, jornal aundia atara leike, sagastian bierra eginda.

Piñadiak daukan bentaja auxa da: lur txarragoetan be irabazi egiten dabela ta jornal gutxiago bear dituala.

Bai sagastietan, bai piñadietan aurrerakuntza aundiak egin dira. Sagas- tietan, landara barriak abonoak ta botikak beadrezkoak dirala, sinistuten asita dago jendea. Piñadietan, barriz, gure artean aurrerakuntza batzuk sartu dira: motoserria; bideak egiteko exkabadorak ta karriorako baso-ka- mioiak.

Nazioa batzuetan beste aurrerakuntza batzuek asita dagoz ta ona be alako baten elduko dira.

Orietxeik dira aurrerakuntzok: basoak arrotzeko ta abonoak zabal- tzeo makiñak; gari kosetxadoreen antzeko, arbolakosetxadoreak; kokaok galtzeko, botikak zabaltzen dituen abioiak; landara txikiak banan-banan sar- tu bearrean, berezko aziketak. Berezko aziketa egiten da hetarea bakoiz- txean go edo 60 piñu zar itxiaz ta euron azikiñ barriak sortzen dira. Baña aurretik "ripper" izeneko makiñakin, lurra arrotu egiten dabe ta landara barriak azitakoan zarrak kendu.

GUDARITZARAKO
BARKAMEN OSOA

Soldadutzatik iges egindako guziei dagokie

Soldadutzako saillean egin ditezken oker eta utsegite guzien barkamena emana degu oraintxe. Barkamen-agiria Gobernuko Boleti- fian argiteldu da.

Barkamen onek gudaritza utzitakoel, izena eman gabe geldituta- koel eta abar legearen zigor guziak kentzen dizkie gaitetik. Ezta be- raz, zigotz nagusietan bakarrik, baizik eta zigor guzietan sartzen lege berri au. Kartela, multa eta abar, guzia barkatuta gelditzen zale onela oker jokatuei.

Ori bai, onela zeudenak bere gain artu bearko dituzte beren ur- teetakoel jartzen zaizkien eginbeaz guziak soldadutza saillean. Bai on- tan legearekin ondo daudenak eta bai 1966'garren urteko 55'garren legeare n laugarren atakan, eta a) zatian sartuak daudenel, 1969'ga- rren urtean ogel ta amar urte boteak zeuzkatenei, soldadutzarako eginbeaz guziak barkatzen zaizkie. Onela, gudar-ordin bezeia gelditu- ko dira, beren urteak osoro bete ta ordaintza oriatik ere ziaro aska ditzoten arte.

Agintariak, beren entzuleei aditu ta gero, legearen zeuden es- kabidea artu ondoren, emango dute barka-lege au. Españia barruan daudenak jo bezate zuzenean orotariko agintariengana; ta erbestetan daudenak Espainiako konsulatutara jo bearko dute arazo au buru- tzeo.

(CIFRA)

"ORDEN PUBLICO" AUZITE-
GIAREN EPAIAK

EPAI BERRIAK emanak ditu Erri-Zuzenbideko Auzitegiak. Sotero Irazusta Oleari, Sabino Telleria Zuzenbideari, Jose Luis Segurulari, Ignazio Amadorain Etxegorenari ta Franzisko Maria Gobiururi, bi urteko espetxea ta ogel milla pezetako diru-zigorra ezarri die. Legez kontrako elkarre ta zabalkundea egin omen dute zigortuko.

Erru berdiñengatik zigortu dituzte Juan Amilibia Atxukarro ta Mi- gel Isasti Gabilondo. Bakoitzari, bust urteko espetxea ta berrogei milla pezetako diru-zigorra ezarri diote.

Legez kontrako zabalkundea egin dutelako bakarrik, zigortuak izan dira Jose Kurutz Orkologa Mendiluze ta Franzisko Xabier Kamino Ler- txundiri. Ari, lau urte, bi ilabete ta egun bateko espetxea ta amar mil- la pezetako ordainketa-zigorra eman diote ta bigarrenari, iru ilabete- ko presoñdegia ta amar milla pezetako multa.

Eruñabentat jo dituzte Fernando Galparsoro Billa, Ignazio Salabe- rri, Jose Antonio Fernandez Mendizabal, Franzisko Xabier Kamino Lertsundi ta Franzisko Bidagor Basco. Auek legez kontrako Elkar- tean sartutako salapena zuten.

Elkarre okerrean sartuak bezela zigortuak izan diran oietzak dio- tena au da: euskal-alderdi separatista batean izena emanak ziralra ta 1967 ta 1968'garren urtean, Euskal-ikurriña aldera botatzen ibiliak ziralra jendetza aundiak batzen ziran aldieta.

Irugarren epai batean au diote: Jose Antonio Esteban Jauregi Zaltegi, Mondragoiko enparantzaren separatista-agerpen batean nabar- men azaldu zala, Uztailaren 7'an eta 1968'garren urtean.

Laugarren epai batek amar milla ta bust milla pezetako zigorepen utzi du Juan Franzisko Rodriguez Aristegi. Legez kontrako zabal- kundea egin omen du onek, baiña urte gaztea denez epaitu omen dute. Au Donostiko barretan arrapatu omen zuten, Maiatzaren lenen- go jaiari buruzko orri asaldatzaileak zabaltzen. (CIFRA).

Irugarren epai-bidez zigortuak izan dira Pedro Salaberria Bilbao ta Basilio Montes Revilla, sei ilabete ta egun bateko kartzelara ta amar milla pezetako diru-zigorra.

Barka-epai iritzi dute, bestaldekik, Faustino Alderete Barajas, Pe- dro Salaberria Bilbao ta Basilio Montes Revilla'k, legez kontrako el- karrean sartutako zuzendakotako salapenetik.

Zigortuak, Barakaldo'n bizi dira, ta 1968'garren urtean, bein baiño geiagoatan separatista-orriak zabaltu omen zituzten.

Epalkariak ditenez, barkatutakoak, Altos Hornos'ko langilleak di- ra ta bertako Juraduari, Itunben-Bilduari buruzko lan bat eman zio- ten. Baña ezta garbi ikusi iñungo legez kontrako elkartetan sartuta zeudenik. (CIFRA).

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gafierra esne putzuak, Olek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA


ERREENTERI

HERRIAK ETA GIZONAK

Rodesia

Afrika-ko abertzale alderdiak, Rodesiar harmadari buruz, berri batzuek zabaldu dute.

Rodesiar gobernuak, bere harmada haunditu eta obetzeko, zailtasun edo oztopo baten aurrean egokitu omen da. Oztipoa: soldaduzka betetzeko zuri-koloniariaren aurrakabatasuna eta nahieza. Zuri hoen artean, greziarrak, alemandarrak, portugesak eta suizdarrak dakusgu gehien bat. Kasu honen zer- zabaldu dute.



1970-ngo maiatzean lege berri bat irtegan dute...

gata, batik bat, Rodesiak, bere harmada Afrika-ko erresistentzia zapaltzeko darabilako. Gainera, Rodesiar nazionalitate hartzeko ere ez daude prest.

Honek desekilibrio txiki bat sortu du Rodesiar gobernuan eta Mc. Leod-ek (ejektorearen buru bat) «polizi espezial» baten beharrene arkitu dirala dio, eta deslegatutun hau, zero zapalduko duala. Ala bada, delako polizi espeziala osatuko dute, baina ez polizi normal bat baizik eta ingelesez (lau- tik bat) eta ego-Afrika (seitik bat)-ko soldaduzka lortutakoa.

Halaber 1970-ngo maiatzean lege berri bat irtegan dute; alegia, solda- duzkai lau urte iraungo ditutana. Lege hau Rodesia-n dauden zurizentzat izango da, aukerik gabekoa.

Industri eta Komerzio aldetik egiten diren lan berezietan sartuak da- duen gizasemeak, legepean ez badaude gogor zigortuak izanen dira. Lege hauek zabaldu baino lehen, batzuz batzuz, Rodesia-tik botak izan dira honezkerok.

Zertarako hainbeste gogorkeri, militar legepean jartzen ez diranontzat? ez al dauka nahiko indarrik Rodesiar-Harmadak, beltz erresistentzia auke- rteko?... Ala beltzak, laixter, zuriak baino indartsuago?

AMAYA LASA

FAGOR

Eraria epela dagola?

FAGOR'ek oztopo du berela

ERAMAN - EKARRI'ra

AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZTIRAKO

Iparragirre, 8 - DONOSTIA

ECHABE

ETXABE' REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enperantza

Urrutizkiak: 84 10 78

84 11 21

ZARAUTZ

Quebec: Ipar ameriketako zuri, beltzak

Canada-k 18 milioi bizilagun ditu, hauen artean sei milioi, Quebec-ko eskualdean bizi dira. Quebec, Jacques Cartier frantzesak kolonizatu zuen 1534-urtean, eta hori dela ta Canada-ren zati honen hizkuntza Frantzes da. Baina hizkuntzatik at, ba ditu Quebec-ek beste zen- bait berezitasun interesgarriak. Bere historiari dagokionez, Fran- ztiako erregeen haunditasunean «Nouvelle-France» izena eman zio- ten. Gero inglesen espansionis- moa zela ta, emezortzagarren men- dean Quebec-ko jendak, Britaina Haundi-ko komertzianten eskutian jausi ziran. Hogeigarren mendean, proletarioa sortu da Vankiar im- perialismoari eskerrak.

Egun Quebecarrak ez dute baizik heien ekonomian 20 kontro- latzen.

Hizkuntzaren prolemtatikara heltzen bagara ez dugu ondorio obaagoa topatuko. Izan ere hizkuntza «Zibi- lizatu» inglesa da, frantzea ez da «hizkuntza zati bat» baizik. Euskal-Herrian entzun ohi den «ha- bla cristiano» famatuak badu Ca- nada-n bere molde bereziak; fran- kofonoak frantzez ardi diranean inglisfonok «Speak white» (xur- iz hitzegin) esaten die.

FRANKOFONOAK BAZERTUAK DUDE

Montreal-eko frantzezeraz den «La Presse» aldizkariak, gobernuaren batzorde-ak, frankofonoeri buruz egindako inkestak argitaratu du. Inkesta honetan zenbait gauza argi agertzen dira. Guztiz, frankofono- jakotzen duen zapalketa, nazio ar- teko zapalketaren neurriak ditutela. Konderria dezagun inkestaren zen- bait resusdau.

I. Bordin ikasiak diran fran- kofono artean inglesfonok ingre- so haundiagok dituzte, eta gainez sozialki obe ikusiak izaten dira.

II. Quebec-en frankofonoak (% 82 dira), inglesfonoen ingresoen % 35 gutxiago dituzte.

III. Canada-n frankofono bilin- gueok, frankofono monolingueok baino soldata haundiagoa dute. In- glesfono monolingueok beriz, in- glesfono bilingueok baino ingreso haundiagok dituzte.

IV. Quebec-en inglesfonok bi- hurtu diren eskandinabo, holan- des, rusiar, indut, tab, frankofono- ak baino posizio obaagoa dute. Inkesta honek zerbaiz esaten digu, Quebec-ko eta Canada-ko fran- kofonoen egoerari buruz. Ez gara harritzen beraz frankofonoek bere burua «negres blancs d'Amérique» izendatzen badute.

Quebecarrak ez dute oraindik bere kulturari behar duen oharirik sen- doak arkitu. Literatura biziki atzer- ta dago eta poesia ere eta litera- tura osoaren tematika ez da fol- klorismotik irterten. Baina hasi da sortzen jenerazio berri bat, litera- tura berriari nahi duena. Idazle be- rri hauek, Quebec-ko errealtatea ikusiaz, une historikoaren azterke- ta egiten dute. Hortaz sarritan po- litiko kutsu bat agertzen da helen obretan.

Hortikoa musikan ere, nahiz eta in- glesaren influentzi izigarria jaso, ari dira sortzen talde berri interes- garriak. Talde hauen artea, biziki

Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo dakite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, orberik ezin arki ditek merke ta ondo ematen.

Fermin Calbetón, 4
DONOSTIA



Nortzuk dira Quebec-eko zapaltzaileak?

interesantea deritzait, «Quebec-ko kienik yankiar militar industrialen jenerazio berria» izena duena. Eu- Zeren askatasunarako frentearen honatan talde hontako Jacques Fo- restier-en «Lindberg» izena duen diskoak.

NORK IRA QUEBEC-ko ZAPALTZAILEAK?

Quebec-en ba dago «élite» garr- tizitsu bat. «Elite» hau burgesa tri- kiez, zenbait apaizez eta komer- ziantez eratuta dago. Ez dago or- dea oligarkia quebecarra; dirua- ren boterea «Canadian»-ek, que- becarrak honela deitzen dute in- glesfonoen, kontrolatzen dute. Yankiar kapitalak axola haundia du «Canadian»-en diru-botereekin. Honela, Quebec-eren askatasunerako Frentea dionez, bere borroka az-

ANTON SANTAMARIA



Basarritarra

ZOMORRO ILTZALEARAKIN ZURE UZTAK
BABESTU SOROETAKO GAITZEN AURKA

FERTILASUS

Ongarri ta zomorro-jalea

BABOSIL

Bareen aurka

SUFOKALZIKO GALDA

Neguan zugaltezi emateko

ETXEAN SERBITZEKO

17 urtetik gorako neska
euskeraz dakiana
eta Tolosan bizitzeko.

Urrut. 661993.—Bestela, «AURTIXOA» Dendan aurkeztu

— T O L O S A —

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón, Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Ali- cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA
Tefnoak: 25.457 eta 26.987

Eiztari Venezuelatar bat

Neretzat, liburu baten gorespen ederrena, aldi batez irakurtzeko moduko itxeta dala iruditzen zait. Orain irakurri detana kolpe batian letu det. Eta gainera, behiñere ez naizela izan eiztaria eta ala eta gutztz ere, eiztari baten idatzia zala liburu ori aitortu bear det. Jeta gustatu zait! Nola zurihi miterio ori?

Julio Groscors jaunna, venezuelatar idazle gain-gaiekoa da. Gaurko egunean Bilbao'n bizi da. Bere aberriaren kontsul edo ordezkaria da.

Groscors'k idatzi du liburu — «Safari en Zambia» da bere tituloa —, bai eiztariel eta baita ere eiztari ez diranentzat idatzia dogala esan leike. Aytentzat, Afrika'n eiza sundia egiteko argitasun eta detalle asko eskaintzen ditulako. Eta eiztari ez diranel, arrigarriko gertakari eta goraberaren berri dakarrikelako.

Afrika'ko eiza abentura ontan bi euskaldun adiskidek lagundu zioten: Juan eta Bernardino Arregi Garai anayak.

Asieran, gure idazle-eiztariak, Afrika'n safari bat gaurko egunean zenbat balio duan zeat eta garbi azaltzen du. Lenbizio orrialdeetan ikusi deza-kegu, bialja — Madrid-Roma-Atenas- Nairobi-Lusaka, abioyan, joan-etorria — zenbat kostatzen dan. «Luangwa Hunting Safaris»-ek jartzen ditu kondiziyak abek dira: Eiza, ogeitabat egun iraungo da eta eiztari bakoitzak jarraitzen diran baxa-piztiak il ditzabe: iru bas-iri; leoi-nabar bat; legoi bat; elefante bat; elai-zaldi bat; kobodrillo bat; eland bat; gudu aundi bat; bi zebra; lena bat; wildebeest bat; iru impala; nabar bat; bi puku; bi water-buck; busbuck bat; duiger bat; brikog bat; warthog bat eta buship bat. Guziera ogeitazapi buru. Eta, jakina: eiza txibia dana libre. Il ditzaken eper, aate, xulunta eta baita tximukak, beretzat.

Irakurleek bereala ikusi dezakezen bezala, liburuaren egileak xeetasun guztiaik expiklatzen ditu. Eta orrialdeak pasata, berdin. Orregatik, safari bat egiteko asmoa duten eiztariarentzako, oso lan ardurazkoa izango dala pentsatzen det.

Eta len adierazten nuan bezala, eskopeta edo rifle bat eskutan beñiere artu ez degunentzat ere, oso liburu interesgarria da. Batzuetan, arrisku edo abenturaz nobela bat dala esan leike. Elefantearen eiza zatia batez ere, irakurleentzako ikaragarria da. Orduko, Arregi'k tokatu zitzaion elefantia il izan zuan da gure idazleari zegokion txanda. Sekulako animala aundi ura plixkanaka galiferatzen ari zan. Eiztariak ba zekien tiroa nuan bota bear zuan. Erizioz tiroa izateko begien artean pasa bear zion. Eta alaxe egin zuan; Kontuz apuntatu zuan da lenbizio tiroa juxtu-juxtu bota zion bere tokira. Bañan egundoko abere ura ez zan erori. Zeoro asarretuta, saltoka asi zan da bere begien ditzirian asarretasun ikaragarria ikusi zitekean...

Bañan pasatu zan gertakizun guzia ez det emen adieraziko. Nik baño azoko obeto kontatzen du egileak eta orretarako obe da liburu irakurtzea.

Benetako zoriorenak bialtzen ditzkiogu emendik venezuelatar idazle os-pestuari.

MIGEL PELAY OROZKO'K

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Euskaltzaindiak jakin erazten du, urriko batzarrean erabaki ta azaroen onhurtu zituala ofizialki, euskeraren batasunerako hilen izen hauek:

Urtarrila	—	enero	—	Janvier
Otsaila	—	febrero	—	Février
Martxo	—	marzo	—	Mars
Apirila	—	abril	—	Avril
Maiatza	—	mayo	—	Mai
Ekaina	—	junio	—	Jun
Uztaila	—	juiljo	—	Juillet
Abuztua	—	agosto	—	Août
Iraila	—	septiembre	—	Septembre
Urtia	—	octubre	—	Octobre
Azaroa	—	noviembre	—	Novembre
Abendua	—	diciembre	—	Décembre

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen beneko azlyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Eroel edo berritzeko diru
surreratzee

Baserri, lur-tronak ta abar

Torelavega'ko Perira joan
etorriak.



1.896

1.969

GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure
«PRESTAMEN SERBITZARITZA» (Servicio de Préstamos)
balla zaitze

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azlenda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak obetzeko
Iakindean jarri zaitze Donostia'ko gure
12 ofizinetan eta Probintziako 63 sukursaletan

«Uhin Berri» liburu Jon San Martin'ek aurkeztua



JUAN SAN MARTIN
ITZALDIARI ASIERA
EMATEN

Jon dan 7'an, ta Donostiko Au-
rreski Kutxaren Kultur-Tokian, Jon
San Martin jaunak, Euskaltzaindiaren
Idazkaria, «Uhin Berri» bere libu-
ria aurkeztu zuan. Kultur —Tokia
betetzen zian jende urtean gazte as-
ko ziren.

Jon San Martin'ek 1939-tik au-
rrera jato diranen poetaren olerki
onenak bere liburuan bildu ditu.
Lan auen bidez euskal poesiaren bi-
dea jarraitzea errexu da. San Martin
jaunak esanaz, «Uhin Berri» n bildu
ditun olerkiak giro berri bat eratu
dute euskal poesian. Denbora lu-
zean euskal olerkiak Romanitiko jo-
rria idatzialak izan dira, Jon San
Martin'ek dionez, Romanitiko era
bere askatasuna bialtzen ari diran
errian sortzen da, ta orregatik Ro-

manitiko era euskal poesian arkitzea
ez da gauz zaila. Gure romanitiko
arteak Elizanburu ta Iparragirre oso
ezagunak ditugu, ta bere kutsua gu-
re mendean asko sartu zan. Ala ere
ez-romanitiko bat, Etxean, XIX
mendeko poeta onena izan zan, ko-
blakariaren teknika ta bertsoariaren erri
indarra batzutean.

Ogeigarren Mendean, joera be-
rriak Modernista giroan zabildu zi-
ran, ta Euskalerrian Lizardi zara-
tara izan zan zian maiyua. Lizardi'en
jarralle geienak imitazaleak baka-
rik izan ziran, sortzaleak izan or-
dez. Lauazeta'k simbolismoa ta Ori-
xe'k mistiko existentsialismoa erak gu-
re artean jarraitu zuten. Beste izen
gandutak: Iratxeder, Salbatore Mi-
tleneta, Etxaniz, Erkiaga ta Jon Le-
kuona ditugu.

Joera quek «Uhin Berri» n azal-
tzen diranen lenagokoa k dira. Libu-
ri ontan joera aurreatzena azal-
tzen dira. Joera berri onetan gauz
bat argi: ikusten degu: gaurko oler-
kiak ezonan bialtzea urbidu dira,
ta bialtzi orren barrutik iritzen da
gauz goxox goxo esanaz, ta garra-
tzak garrazta. Realismoak sozial poe-
sia sortu du. Joera onetan Aresti da
zarrena, ta nai gabe absurdo esko-
la gure izkuntzan barrendu du. Poe-
ta gazte artean Arze, Joxe ta Mikel
Azurmendi, Joxe M. Aguirre, Ibon
Sarasola, X. Lete ta Landarte ezagu-
nenak dira. Beste gazte batek, Mikel
Lasa, Camilo José Celak dionez, Eu-
ropako olerki onenetakoa sortu di-
tu. Etxean ditugun baloreak kanpo-
tik aitu bearra...

Jon San Martin bidez itzaldia oso
interesantea izan zan, ta «Uhin Be-
rri» liburu erosteko gogoak sartu
zigan.

XABIER ARCELUS

«NORA ZOAZ?»

Euskera ikasbidean jator jorratzen
ari zaizkigu zenbait idazle. Lan-maian
daukat oietako bi liburu aurak es-
kolatzen gure ikasleotan. Bat biz-
kaleraz, NORA ZOAZ? buru duena,
Ifaki Gokoetxea jesulagunek egina
ta Larri margolariak koloredun ma-
rrazki bikalñez apaindua. Bizkaiko
«Euskerazaleak» dalako elkartek
azaldu du; izan ere, talde onek era-
tutako lelaketan lenengo saria izan
bait-zun. Probintzi artako Aurrezki
Kutxa etzan motz izan. Esku-zabalki
jokatu zuen bat saria ematean bai li-
burua argitaratzeko; Euskeraren al-
de, erriaren alde ekiten duelarik.


«Euskera ikasteko bide ona eta
polita». Itz oek dakarki zuzenki bu-
ru-pean liburuak. Erakus-zentzuna
ba-duela ugarri ezin ukatu. Aurra be-
gietatik bizi da adimendua aberaste-
ko; dana ikusi, dana ikutu, al ba-du.
Liburu onen egileak ba-dute joera
orren berri. Ipuiak, olturak, kantauak,
t.a. danak agergarri ta atsegingarri
margoen bidez: A. Gokoetxea ta



Larri, biak mailu bait-dira. Egoki-
egoki daturike gure andereho ta aur-
txo mailtei.

«JOSTATUZ MINTZAIRA IKAS»

JOSTATUZ
MINTZAIRA IKAS



Oraintxu azaldu dan liburu, gu-
re ikasleentzako au ere. Gaur-gaur-
ko pedagogi-giroan ele-jekintzari ja-
rraituz. «Euskaltzaindiak emen di-
tuen arauak bete naiez dugu itzul-
pen hau osatu», diote euskerazale-
ak, ez bait-dira itzultzaileak bera-
riz. «Itzen mundua» (El mundo de
las palabras) deritzan liburu, An-
dres Mendez Garcia Jaunak erdal-
dun eskoletan ofizialki erabilitzeko
egindakoa, gure ikasleotan erabi-
tzako egokitu dutena euskal-idazle
batzuk, Aingeru frigaray dutela bu-
ru.

Ba-du Erri bakoitzak berebiziko
izaera ta sena, burutapenak, esaserak
eta usteak joskera beraritzekoan ma-
mitzeko. Olako lanak arantza naiko
edonun, eskola liburuak gure jator-
tasunari salakeririk egin gabe egoki-

Liburu egoki bat

Nere eskuetara eldu dan liburu
ibilikari baten liburu da. Eta, ain
ziur, ibilkarientzat egindakoa, oinez-
ko ibilikari eta baita ere gure Gipuz-
ko mailaren kultura-bidetik ibili nai
duanarentzat.

«Guipuzkoa, paso a paso», urra-
tsez-urrats gure probintziako bazter
izkutuarenetik erakutsi nai bialiaz
arrituzaren-artuz garamazki. Bere
orrietatik bama abiltzen gofianjan,
gure mendibileretan erri-erri ibili
bear orrek sortu ol zigan barne-zim-
koa berritzen digu, eta osotu jakin-
garri anitzez.

Aurretik, Luis Pedro Peña Santa-
go bere egileak, «El Diario Vasco» n
azalutako lanak dituz. Beraz perio-
dista baten bilduma da, baiñan alaz
gutziz ere ez da errexu au asmatzen,
bada ba-du giar eta egokitatsun libu-
ri erakusgarri bat osatzeko. Auxen
izango da idazlearen doarrik bikai-
ñena, eguneroko dena argitaratua-
ko liburuaren teknikal ezkontzea.
Eta ori dana erdera errex batean,
arrokeri gabeko idazkera uler-errex
eta aberats batean, labarize emai
garamazkina gipuzkara urrutietara.

Onela, ain zuzen, gure ere egile-
rekin nabatu degu gure probintzia-
ren aldatu bear orrek emarazi dion
barne-miña. Pedro Santiago gipuz-
koarra da, eta seme on batek be-
zela min artzen du bere ama itxusi-
tzen ari diralako.

Baiñan urteko aurrearapenak beze-
lakoxak dira, bialtzen zianur-er-
gille. Eta onetarako ukendurik-ezean,
amato egin bear.

Beraz, liburu oso interesgarria
diztaizugu gure kultura maite du-
nentzat. Eta gidari mekela ez deri-
tzaiugu gure mendizale eta ibilkarien-
tatz. Gure ibilidali bakoitzaren au-
rretik liburu onetan begiak ipintze,
urruno egunez nuntzu ibili bear de-
gun jakitea da, zer esaten digun al-
derdi bakoitzak entzutea da, zer izan
gijian eta zer izango geran kontura-
tzea. Zure adimen-lan erdia, mendiz-
ale, erreturik eskeintzen dizu.

Er deraz egina da. Auxen akats
soilla. Baiñan erderaz ere erakusten
zaigu, sarri, ikasteko gauden anitz
gauza.

Eta egileak gure probintziari dion
mailtasuna garbikiro eta zerrenda
mingotutuetan azaltzen digu. Ezkertu
dezaigun bere borondatea.

Bukatu dezan adieraziaz «Edito-
rial La Gran Enciclopedia Vasca»
seiatu eta lortu ere egin duala libu-
ruaren egikura apain-derrez ema-
ten.

«UXOLA»

Muebles Inchausti

Lasarte'n dagon etxe on
[batek
eskeintzen dizu osatu,
an dauden gauza zoragarriak
bixitatzera prestatu.
Apain, dotorez, berdinik ezta;
ihola ezin puskatu,
MUEBLE bearez baldin
[batera
INTXAUSTI' NEAN eskatu.

Estación, 19

Urrutizkifia: 97580

LASARTE

tzeko; eta batasunaren leiaz asma-
turik ba-dator, areago.

Eskuetan erabiliñ duten ikasmol-
dea gure errikoli biurtu dutela egi-
egia deritazat alegi, ipui, joku ta kan-
tuek dirala bide; Azkue, Barandia-
ran, Donosti ta beste biltzaileak erri-
tik jaso zituzten bezela itzez iz
oralingo umetxoel emana.
Ikasbide eragilega du asmoz ta go-
goz lan onek; aurra ikus ta ikas zo-
rian euki beti, luma eskuetan du-
larik esaserak osatzen. Ono beregi-
natzen badute aurrik ikasmolde au,
gero erderaz berbera erabiliñ bear
duten ezkerri, bi izkuntzen jabe iz-
teko onuragarri izango zale.

A. Z.

"EUSKERAREN BATASUNERAKO BIDEA EBAKIA DAGO"

(Euskaltzaindiaren babesean, Iñaki Beobidek argitaratu du Euskera batasuna)

Ba dira berrogei eta hamar urte Euskaltzaindia sortu zala, ta jaino berrien egiña izan zan Campion eta Broussainek gertatutako lenengo euskeraren batasunerako in-forme ura.

Ba dira urteak:

Arrezkeror ere egin da lana praniko ta izan ditugu euskaldunok esan ezin diran eta adierazteko errezak ez diran anbeste neke; baiñan esan dezakegu gaur, eta don Manuel Lekuona jaunaren oso itzaltzaren bitartez, euskaldunok sartu gerala aintab arindu ta pisikortu gaituan bide batean: "Batasunerako bidea ebakia dago".

Auxe dio Euskaltzaindiko lendakariak orain arte berri-berria dan Euskera batasuna izenarekin ari bea-rrazko genduan dokumentuan. "Euskera batasuna: az-ken araudiak", dio liburuan atarian. Ementxe biltzen dira Arantzazun onartu ziran Mitxelena jaunaren lanak, ta orretaz gainera oso jakingarri zaigun Villasante jaun-aren "Batasunari buruz bibliografia", don Manuel Le-kuonak batzar aurretik eta ondoren esan zituan itzak, eta bi mila itzeko "Batasunerako hiztegia".

Dana bere aundi-aundiko bide-gidaria auxe.

Liburuxka (77 orri) onen sarrera zabaltzaileak egi-ña da.

"Irakur sail" izeneko liburu talde baten lenengo ti-tulua dala dio: emen aitatzen ditu batasuna gai dutela Euskal Idazkaritzak Baionan (1964) eta "Gerediaga" taldeak Ermuan (1969) eratu zituzten batzarak; Er-muan aditutako azken erabakiak osorik ematen ditu; gero, Arantzazuko batzarrak aitatzen du.

"Arantzazuko biltzarren gaur bat ikusi zen: batasu-naren kontra egotak arrazoi bat bakarra duela; dela-ko h hori erabili ala ez erabili. Ez da besterik". "Dena dela, bai Baionan bai Ermua ta "Arantzazun berebat, iritzia gehienak eta agian sakonena h-ren aldetikoa izan ziren. H-ren kontra zudenak behar zen ordu eta egunean. beren iritzien alde alera zirenean, arrazoi egokirik eta tuzukorik ez zuten aurkitu". Horiek ola, herria, ikastola, idazle gazteak eta abar hor daude bide seguru baten eske". "Oinharri herria, euskeraren batasu-naren eskariak egin zituen Mitxelena jaunak; batzar-de horrek berak Arantzazun egin zen batzarraren, on-hartu egin zuen. Arantzazun iritzi horiek naustu egin ziren, ondoren datoen orrietan ikus dezakezuten".

Alaxe, ari itzaropentsu, dio sarrerak.

Gero, batasunari buruz Aita Villasante osatu duan bibliografi jakingarri bat dakar liburuak: Euskaltzain-dia sortu zan ezezagotik agertu diran lanen izen-buruk aitatzen ditu. Lenen, Euskaltzaindia beraren agiri ta era-bakiak eta batasuna gai dutela agertu dituan lanak; emen dago, noski, Resurrección Maria de Azkue, Altu-be-tar Sabar, Broussain, Campion, Eguizkita ta Ori-ven-er lan jakingarrien aipamena; gero, Euskera aldi-kari-rik kanpora agertutako beste zenbait lan, eta oien ar-tean Baionako ta Ermuako erabakiak, eta Julio de Ur-quioren lanak.

Ezin al litzake lan guzi oiekien liburu bat osatu?

Arantzazuko batzar-aurreen esan zituan itzak datoz: Eus-kaltzaindiko lendakari jaunak dionez, 1969-go lenengo kaltzaindiko lendakari jaunak dionez, 1969-go enengo batzarrak Bilbon egin zanean norbaitek eskatu zuan Eus-kaltzaindiaren 50 urte-betetzean euskeraren batasuna gai artuta batzar bat eratu, "eta geroztiko gure bat-zarrietan batasunaren gai ori erabili da eten gabe"; gero Ermuako batzarrak aitatzen du don Manuelek, ta batasuna batez ere aldi-karietate eta ikastoletarako li-buruetan erabaltzeko egin ber dala, ta baita liturjiaren zenbait zatitarako ere; ala, asmo onetan, Euskaltzain-dia batzorde berezi bat antolatu zuala; "batzorde orrek neurri oiek ondo mugatzeko, Mitxelena jaunaren babes seguruari izan ditu batzordeak zenbait bilerak, Mitxelena jaunaren txostena guzian artean aztertzeko. Txosten ederra ta ondo pentsatua gure Euskaltzain-la-gun Mitxelena; oñadi orokar batzuen ondoren gra-matika auzi guziak ukizten ditu edertzik; asi Foneti-katik eta Morfologian zear, Ortografiara".

Esaten ditu don Manuelek batasunatzat dituan bere ueste jakintsuak: ulegia, euskeraren batasuna egitea lan zailla dala; euskera ugaria izanik, aukera bat egin be-rra dagoala, ta zer artu ta zer utzi uzi bereizketa larria dala; ta larritasun oiek min ematen duela; txikitindak go-goan eta aon bizi izandu dan ori uestea oso mingarria dala; baiñan esan ondo bizi gero, gure gorputzak berak ere el dedin operazio baten beaurren arkitzen dala naizean bein, eta ikuntza ere gorputza bezala. bizirik eta operazio batek itxusituta ohea dala eder eta illa baiño.

Alaxekoa baita euskeraren arazoa.

Itz oien ondoren dator Euskaltzaindiko Arantzazuko batzarrak egin eta gero agertu zuan agiri: don Manuel

EUSKERA BATASUNA
BATASUNA
BATASUNA
BATASUNA
BATASUNA
BATASUNA

JOSE MITZELANA
EUSKALTZAINDIA

AZKEN ARAUDIAK

bera, A. Damaso Intza-koa, A. Irigaray, A. Irigoyen, Antonio M. Labayan, Pierre Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin, Jose Maria Sarrutegi eta L. Villasante osatu zuten batzordeak egiña izan zan. Batzarrak beren ondorio bat erakutsi naiz nubit, agiri on-ortzen du bi bokalen artean eta beste toki batzuetan (hitz, hizkuntza, hautatu, hortan) eta demonstratibetan, delako h ori.

Neroni ere asi bearko, ta al detan azkarrena, agin-du au betetzeko oitira berriak artzen.

Agiri onek dionez: "Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiki geroago eta astingor argitaratuko dituen era-baki ta lanen aurrerapena agertu nahi du orain". Eta or ematen ditu, garai artako agiriaren: 1) "Ortografiar hor-tarako hautatu zen batzordeak aierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira". 2) "H-ren auzia, erdi-bide haukeratu da hasteko: ulegia begi onez ikusiko lukela Euskaltzaindiki letra hori bi bokal berdin naiz ezberdinen artean erabiltzen hastera; honek ez du gure nahi gorago jo nahi datuen saiok ez direla ongi ikusi-ak izango". 3) "Morfologia, izenen erabilera batzordeak prestatu duen aintzin-lana puntu nagusietan oinharri bezala hartuz jakutuko du, aditzereikoa bes-te aldi baterako utziak".

Irakurri berria det nonbait, eta gure langilleetan onentxona degun Xabier Geroñoren idatzi batean, joan dan urtearen bukaera baino lenago izango genduala eus-kaldunok batasunerako liburu bat, aditza ta guziti; ezin liteke orain aitatzen ari naizen liburu au izan, Arantzaz-un aditza geroarako utzia izan da-ta.

Ba ote da besterik?

Gero datoz jaunaren lan sakon eta jakingarriak sei jardunetan: "Oinharriak: ze batasunen billa gabilztan", "Ortografiar", "Hitz formaz: antzinako euskal-hi-tzak", "Hitz berriak", "Morfologia" ta "Joskera".

Ondoren: "Batasunerako hiztegia" dator.

Bere itzurreak dionez: "Ba dugu beste haurrik, batasun bidean abiari geroez gero, larrigorri agian, eta goitzagorri ere bai, baina ez, guk ueste, premiario-gorrik. Horregatik ba da, an hartu ziren erabakiak no-larebait mamitzeko eta gatzatzeko, legezko irudit zi-tzaigun zenbait hitz-zerrenda prestatzeko, holako forma eta grafia erabili behar litzakean azaltzeko, gure iritzi-rik behintzat". Gero, 2.000 itzeko zerrenda jakingarria.

Azkenik, don Manuel Lekuonaren azken-itzi labor bat dator, esanez:

"Euskaltzaindian, Euskeraren batasuna eratu deza-la eskatu zaio, orain 50 urte bere Sorreraren gogoangar-ri. Euskaltzaindiki bete du bere agindua". "Batasu-na egiña dago" esango da. Esan dezagun obeto: "Bata-sunerako bidea ebakia dago". Gure bilerak oiek ez du-te bideak ebaki, bideak autsi, besterik egin. Batasuna bera "egin", orain egin behar da, biltzian, joanez, prakti-kan: idatzen eta ikastoletan azken-itzi oiez betez, az-ken-itzi oien neurrian idatziz eta erakutsiz. Zuen da, beraz, lana batez ere: idazleona, andereñoia".

Euskaltzaindiki egin du, ba, bere lana; orain guk ekin bearko gureari: oituz zarrak utzi ta oituz be-rriak hartu. Nik nere alegian beteko dut.

UGALDE-TAR MARTIN

HANDIK ETA HEMENDIK

BILBO-BEHOIA AUTOBIDEA

Nik ez dakit autobide hau alpe-rrikakoa izango eta dan, eta ikusi zergaitik:

Arainegun, Baiona-ra joan izan be-har neban. Kotxean, «Elsa Scheelen» nobelaren 36 ale neroazan, editoria-lak egileari eskeintzeko emon neus-tazanak (nerioan dokumentoak hori adierazten eban). Horren aparte, «Arantzarte» nire nobelaren 10 ale, mugaz bestaldeko idazle adis-kidoak eskeintzeko.

Mugara heldu ta gendarmek or-du batean han euki ginduezan: ko-txea goitik behera errejistratu. Sei gela batean sartu ta errejistratu. Sei bat automobil geldirik, eta zergait-iki eta lu-erka kafe bat hartzen joan zan aduanako bistaren zai.

Zorionez, liburu guztiak berriro bi-hurtu euskezan, ezer ordaindu ba-rik, baina nire galdera hau da: Ez da kontradizio bat autobide hortan hainbeste miloi gastatea, gero bi-dean irabazi gelinean ordu hori fron-teran alperrik galdu behar badogu?

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Ohi denez, Baionan izan dau bere batzarrak, ta hartutako erabagien ar-tean, euskeraren batasunarako ga-rantzit haundikoak izango dikanak dagoz. Idazle talde hau gogor dabil lanean eta bere fruituak onak eta ugariak izango dira.

ITZULPENAK

Orain arte gure literatura, eskasa izanik, Euskalerritik kanpo gure li-bururak ez eukien inportantzirik. Itzul-penak, tradizioak, ba ziran, baina beste hizkuntzetatik euskerara.

Gauzak, aldatzen doaz. «Itxaro-pe-

na» argitaldaria, orain hilabete gi-txi dirala, «Ikasteko» titulorekin ikastoletarako liburu bat zabaldu eban. Arrera ona euki dau, gure mu-getatik kanpoan be. Eta holan, ka-talan hizkuntzara traduzidua izan da ta adizinoa makinetan dago. Ingle-tarratik be eskatu dabe, ta 20.000 aledu edizio bat egiñ dagoz, In-glese, Bretaina Haundiara bialtze-ko.

Txillardegi-k be liburu bat euske-raz idatzi dau, flamenkora ta beste europiar hizkuntzara orainitsu tra-duzidua izan dana.

BETI ALAI

Ondarruko «Beti Alai» euskal abeslari berrien konjuntua, deseg-ten doala esan deusku.

Ez, ondarrutarrak. Hori ez da bi-dea. Egia da talde horrek ez dala lehen beste jaialdian abestuen. Egia da bere diskoak (eta nik ez dakit zergaitik hain polita izanik) ez dirat bizi gelinean ordu hori fron-teran alperrik galdu behar badogu?

Abestlaren bidez lan haundia egin leike gaur Euskalerrin. «Beti Alai» taldeak hainbeste gazte ta ez hain gazte bizkortu ta pitu dauz. Segi aurrera! Batak nobioa daukela? Ba beste bat hartu. Ondarrun neska naiko egongo dira, bat edo biren hu-tsuna betetzeko.

«Anaitasuna» ixildu zanean esan neban legez, «Beti Alai» konjuntua ixildu ez daitela eskatzen dot gaur. Heriotzeak bakarrik ixildu arazi ga-tzala. Bizi garan artean, burrukan egin behar dogu, euskera goira jaso arte.

Aurrera, ondarrutarrak. Zuek, be-ti aurretik!

XABIER GERENO

ORMAZABAL. - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE -TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETZUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn.

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIA

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
HERNANI, 4 DONOSTIA

FUNCOR, S.C.I.

BENETAKO BASERRITARRAK BEAR DITUTZEN
MAKINAK

BIRRIINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

EUROPA'KO AUERRERALDEUN'K ONENAK.
AMENGO NEKAZARIENTZAT.

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELOERIO

Vizcaya, 114

zumarraga

GAURKO GAZTEDIA
BIARKO GIZARTEA

Aldiaren gurpil ardatsean, seigarren amarekoak baxetik, 1969-garren urtea, kondaira irakurgarrien gazte-lu zaar ilunean sartu da.

Une onetan ez da, berri emalle onen ametsa igaro diran amarkada ontan gure erri barruan gertatu diran goraberak argitaratzea.

Gure barru iluna ixaropen aundi batek argitzen du, gogoratuz izango dala egun argi bat agertuko dana, adelsari trebe bat, alderdikeri gabe beren luma zorrotzarekin epa-tuko dituen 1969 urteak gure artean utzi duen izan usaita kiatsa.

Sendi guraso ta erriar ez gaitza, gurtziz egokito ditugu gizarte eziera ta jakintza (kultura) biotzez gorantzen ditugu esparru onatko langille trebek. Gure errian, gure errian aldi bidez, ikusten degu; La Salle aundiak aia gogoko zuen lan-tegi edor bat, ta ikastetxe onen ba-besean, ikasle zaarrak beren ba-borde bidez egiten duten lan bi-kaina, gurtziz eta gurtziz gurtziren gogotzen jakintza aia eriten.

Amaitzea dion urte ontan, Le-gazpi La Salle orot ederrean ikusi ditugu. Ikasle zaar elkarre babesean eratu, amaika ikusgai eder!

Zine mitz, ikasgai aundiz orni-tuak. Zine forum egokiak. Ta zer esango degu entzun ditugun Itzal-di, abeslari, bertsolari, soinu jotza-ria ta beste gai askotan beren tre-be-tasuna agertu duten ordinarri bu-nuz?

Joan dan urte ontan elkarre onen zuzendariak egin duten lana goien mallakoa dala, esan bear. Ikusgai aurretan ikusi degu areto ederra gurtziz beteta bereziki ikusgai indarke-rikioa ba-da. Ez, gura indarkeria aupatzen duten kirioleza, gure go-goa, indarkeria ez da kultura eza-pide.

Gazte-errietatik gurtziz begiko degu ikastetxe zu, ta onen biran gertatzen dan gurtziz, bereziki kul-tura arezoan. Gure iritzi apala da, Ikastetxe au izan bear du gure erri gizarte argi motill ta gidari.

1970 garren urtearen sarrera ontan Ikastola ta Elkarre zuzendari ta baxidez gurtziri opa diegu zo-rientasun gurtziz, eta ikusirik gu-rru inguruan daukagun negar barra, arren leitu dituela gure artean aia daukagun Elizaren idatzi-errian Langille ta Negusien arte-ko artu emanak ageteko. Au es-kutzen du.

AZKARRAGA

azkolti

BORROKA

Aspaldin darabikiguru borroka go-gorra gure herrietako eskolatan eus-dera sartu nahirik.

Gali honi buruz asko idatzi ta ge-hiago hitzegin da azkenengo urte hoetan, ala ta gurtziz ez ditugu gauzak guk nahi haina gurtziz ikusi.

Zerbitz aurreratu dugu ta erruz poztan galu delako irabaziak, bainan ez daukagu noski lotan gelditzerik, oraindion lan asko baldugue egiteko.

Argi adierazten dugu bide aurreratu, halia laburra izan ez dagoela ezinezko helbururik benetako nahia ta gogoa gurtziz baditugu borrokari. Elizak, gurtziz dakigun bezala, ze-rikusi haundia izan du ta du gure he-rriko eziera ta jakintza. Bazen or-dua-ta, behinero ezaipera beranduegi, guraso elkarre ta bailera baxetako jakintza talde berezik sortzen ha-siak dira.

Hala ta gurtziz eleiza edo eleiz gi-zonen esku ta babesean arkitzen dira jakintza maila gehienak. Apaiz, prai-le ta lekainak irakasle talde ugari di-tugu gure herrian.

Jakintza nola irakasten dieten? Gehienetan gaztelaz. Homen da-tuza errua, hemen zoritxarreko aka-tsa.

Hunela jaiotzetik in euskeraz baka-rik ohiotuko haurrek mundu berri-batean aurrean arkitzen dira ikastetxe hoietara heltzean, zeren galazari egi-ten baldietze euskeraz mintzatzea ta poliki-poliki umeen buruak zeroa al-datzen josten dira. Horrela dituzte orain hainbat gazte, mutil ta neska, haurretzaoren euskeraz mintzabete zuten ta orain deusik ulertzen ezdu-tenak.

Haur hoel beren izakera kendu ta beste bat ezarri diete, ukatu erazi diote euren nortasuna.

Gizona hiltzeko era asko daude,

bainan gure artean deusak gurtzi en-tzun chi da hiltze hoen aurka. Begi-kin ikusi ta eskuakin ikuitzen ditug-un gauzei bakarrik ematen diogu garrantzia. Materialistak gora.

Oraindik egun gurtzi direla lekai-me katekin egun nintzan hitzegiten. Ez nuen lehendik ezagutzen bainan etzan hori oztupoa izan alkarizketa lube bateri atek idekizteko. Gure zela, Gurtziz'en urte mordoia egona ta ezagutzen zuela zerbaiz gure lu-maldea adierazi zidan. Euskaldunok, lehen, jente ona ta elizkoia emen ginan, orain jaungoikoaren bidetik ir-teneko. Hunek samin haundia ematen zion.

Gure errua? Euskeraz maite izatea. Garrantzi haundia gura ematen diogu-la, lekainak hark esatera, gure hitz-kuntzari sinisimen ta eleiz gauzeri baino.

Eleizak aldeketa haundia ematen du meza donax herri bakoitzean hiza-rtzen jarriaz. Hobeki ulertu ta sako-ngo beritzen baldugu. Xelebreal gu-ziok ontzat ematea.

Jakintza mailan zergaitik ez egin beste hainbeste?

Guk euskeraz jaungoikoarekin mintzatzea arrokeria zeritzaion lekainari. Benetan gure herrietako lekainak ta praleak beren jokabidea zerbitz aldatu beharrean arkitzen dira.

Ohartuko ahal dire behintzat! Geroak esanen digu nork dun ar-ra-zoi.

ORMOLAMENGI

eibar

GABONGINAK

Aurtengo Gabonetan hitz berri bat ikasi du. Egunero, egusentiaz bes-te gauzei berriren bat ikasteko suke-ria datorrigu.

Nere amagiarrebari entzun nion lehen aldiz: «Gabonginetara zoazte? GABONGINA, gabon egin, gabon jai egin, edo ta gabonak ospatu esangu-ria omen du».

IKASTOLA

Abenduaren 21'an. Mogel Ikasto-lak eratuta, jaialdi berezi bat izan gehiun Amaia antzokia. Bezperan Astelena Frontoian, eta egun berean ere Ameriako Eskolan beste jaialdi batzuk izanarren, ohi ez den bezala-ko harrera izan zuten Ikastolako hau-rrak. Izan ere, behingoa berederen, sama-ezurretaraino bete zitzaigun Amaia Antzokia.

Astistak lehen mailakoak ez bazi-ru ere, beren jaiotzasuna etorria, dana eginbeharra, egonezina, eta sa-solko berezoko entzuleen txaloak eragin zituzten. Hitz batez, danon po-za eta batez ere gurasoen zorame-na. Laister arte.

AITUENTZAT

Aituentzat, eta hain aituak ez iza-narren, irakurtzen duenaz kontura-zen dionentzat, zuzenketa bat egin beharrean naiz.

«Iraun» aditz transitiboa edo igaro-rra dugu. Hain zuzen ere, Eibar-rran «asko irautzen jok» esaten bait dugu. Omatxeberriak «activo intransitivo» deritza. Hona hemen nere erruaren sustraiak.

Nunbait irakurria dut: «Gazteie-ri oker jardutzen galarazten badiegu, ez dugu inoiz damuturik kusteko ez aukera eta ez atseginik».

ASTELENA

Bat batean, urte berrian sartzeaz batera, frontoia itxi digute. Udale-txea nahiz bertako guezabak, bako-itzak beren arrazoiak dituzte. Bainan tartean, denak inguratutik, betiko le-losa nagusi, abesti ezagunarena: «al-txin, altxin, diruaren hotsa...».

AMATINO

amezketa

AMEZKETA

Erantzun bat eman nahi genduke bertsolarietaz eta Amezketaaz. Erre-zidilik egin ziguten kronika buruz, ZERUKO ARGIA'n.

Argitaratu nahi genduke Amezke-ta gertakizuna ta bersolarien egin-kizuna gaurko gure kerriari begira-tuaz. Esan bezala, Azaroak 16, azal-du zan esanez Amezketa jokoera zakurkeria izan zala eta Euskalerria Euskalerri dantetik inoiz holakorik gertatu zanik eta bersolaritza ez za-la gorrotoa sortzeko eta haiek hola-koak uxatu egoteko litzukeala.

Baita ere hazaltzen digute badago-la aukera ugaria bersolaritan. Basa-ri berdingabea gandik hasirik. Uta-

pide dala, Lazkao txiki dala eta abar. Bainan zuki hazaltzen dezan era-n ikusten degu Amezketa gertakizu-n berri ez da dakizula sakonetik.

Zakurkeria al da gure problema bat hazaldu nahi degunega eta beste bi-derik ez degunega agiriaren eramate-ko...?

Gure problema haundiak aurkitzen ditugu bersolarien tartean zeren ta kalako eta problema hoiek gogorrek izanik ez dituztelako hazaldu egin nahi. Horregatik aukeratuak izan zi-ran gure herriko problema garbi hazal-duko zutenak eta baita hazaldu ere. Guretzako bersolarien eginikizuna herria berbitzea balida.

Guk ez diogu kentzen bersolarien meritu hori; gure prolemetan sartu nahi ez dutenak bainan gure herriak daukaten egonak ahaldu nahi ez dutenak izan esango degu noski Eus-kalerriari berbitzeko daudenik. Gaur egun esan da min haundia hartzen bada ere gure egoera hartzu gaben egon bear aldegue? Zu bezelako asko oste dira era hoitan jokatzen duten bersolari haien harriak emango lio-tenak?

EUSKAL ALFABETIZAZIOA

Gure herrian aurtan eratu da Eus-kal Alfabetizazioko lenengo ikasketak. Honela Amezketa jendea ohartu da zer gutxi dakien bere ikuntzaz. Beir-ner ez digute erakutsi eta ez da ariztekoa ez jakitea, nahiz hamar ur-te egoki naiz ogei. Euskal Alfabeti-zazioko lenengo ikasketak hau izan da; irakurtzen eta idazten ikasteko eta gure ikuntza berri jakiteko au-rraen.

Ikusi da gure herrian giro ona da-gola eta jendeak oso ondo erantzun datorren edo bigarren ikasketan.

AITOR

tolosa

INAUTERIAK ATETAN

Eguzkia omen dugu beti ekaizta-ren ondorengo. Igazko Inauteria-ak aruntze aulak izan egi tenuten, ze-ren tolosar gazteak bakoit edo os-tropo egin zien.

Aurtengoko besteakotz izango omen dira, gazteak diotari so bal-di-n ba-gaude. Anitz gazteen mintzai-aran sinisten ba-dugu ez da giro ma-kala izango aurtengo Inauterietan. Gazteol kalperean sartu ba-zaigu, gose pasatuari gixan, lengo ordainak eta gelago gureganatzea, umore go-se ori gogozko betekada batean ase-tzea.

«Eta tolosar gazteak ein orotaz ur-titzen danean ez da badazekadako giroa izango. Aurtun, bi urteko umio-ria batera. Umore bateratua!»

Bere nagibe eta saminak zertxo-bait aaztu nai duanak datorrela To-losa'ra aurtengo Inauterietan. Tolo-sarrak erantsiko die beren filosofia, alegia umore ona, oraindik, nega-zelai bat dan mundo onetan bizi dan egi bat, gauza bat dala. Egia dan ga-za illegorria. Saminak aaztuzteko sortu dan egia.

Auxen da gure jaioterrian aoz-ao gureganatu dugun giroa. Orain, gi-ro ori borobilitzeko eta berotzeko as-mo asko eta gurtziz atsegin bade-bilitz. Bainan asmo auzen xeetasunaz mintzatzea urrengo baterako lare-zen dugu. Anitz alala da gure naie. Eta, Inauteria tolosar umoria. Eus-kalerri gurtziri eskeini eta banta-zen zalon anatesuzeko umoria.

Beraz, datorrenean esanen zertan gabilzen.

OLAZABAL DAR XABIER

yurre

Yurre, lurre ala Igorre ete-da Arra-tia'ko errian artean aurrerapen an-diena egin dauan onen izen egiaz-ko? Dana dala, erro bakarretik de-torzan izt anayak diran ezekero, del-tu daitzeagun bakoitzak bere erara orain arteño lez, eta gurtziz ulertu-ko dogu no gabilitzan.

Erbarenean izan ziran solo ze-lai zabalak, emonkorrek eta abera-tsak, lantoki barriakoz ondatu dira zatirik onenak. Txarribaso'ko arrobia, Urkitzu'ko karabita ta Iru-lau serrato-ki izan ezik, lugineta edo nekazaritza-zan dan-dana. Gaur, oso bestera al-datzen daukigu. Eguneroko egi biku-na errezaga irabazteko beraz da-karren bizikaria otz eta gobeila infor-ke izan ukatu dau.

Len, Garamendi, Urkitzu, Basauntz, naiz Garbe; Iturtza, Orbio, Saratsu ta Iparategi, ezaun-ezaunak ziran umetatik. Gaur bariz, alkarri besa-ka ta moltzokoa egin diran etxadik erbestetarez betetan diran ezekero.

ez dogu lengorik. Agur, egun on, arratsalde on edo gau on esan barik eta entzun barik inor ezan igaroten inoren ondotik. Lau itz gozo ta sa-murrak ezagun eta adixkide zarren-tzat bakarrik doguz, neurtuta dala-biluz. Txurruetxoak talde ezardien eta ezeazunez betete, bizkerra naiz saletak alkarreri gonik, bizikera otzaren ezaguerri doguz.

URKINTZA (planificación)
Bakotxak bere sakelari begira ta bere erara jokatutik aldatuntza ain andiak egin eta egiten dagon ezke-ro, zer ez dogu ikusiko gure Igorre-n gurtziz ulertutako, urigituntza-alkoan sartu gaituezan ezekero? Uri ta erri andietan gauza on asko, txarrik eta galzoko bere ugari.

EGUTEGIA TA EUSKERA
Aldaitutagatzer Ander'en egutegi harri dotorea eskurtu dot, bai-ta, etxeko tokirik agirienean jarri be. Bakotxak eta gurtziz jokatut ba'gen-du Ander'ek bazen burutsu, eusker-a-reen egoak zabalgatuko, indartsuagoko eta luma dizdikorragoz jantziak izango litzakez.

Adixkide Ander: Adibide edere-tetako emon dautsazue ondoan do-zun Gurtziz baxargiari (Zeruko Ar-giaren arpiodun harriari): Murgio-l ta beste batzueri. Noli aldutute-ko doguz ate-buruetako «carnice-ria», «pelukeria», «garage», «farma-cia», «cooperativa» ta abar? Noli arte bizi bear gara begiak itxita eta inoren menpeko izaten?

A. LANDAJUELA

ordizia

JO-TA UTZI GAITU

Gure betiko lagun Julian Goena-ga Iribarren-en bat-bateko eta infor-batere ueste eztaiko eriotzak.

Bere lantegian lanean ari zala eriotza etorri zituzten. Iritz gabe utzi-zun Ordizi osoa bere lberriarik. Ur-te sasorik onenean oraindion ere; langille sutsu bezela beti lan-dan-lan jardun izan du eta azkenetako jar-dun du gizaioak...

Ordizi osoa an zan gure elizan illetak egin zitzaiozkanen. Alaxe argi ta garbi azaldu zun zion malax-suna.

Gure samin agurra biujakioe bere emazte, seme-alaba, anai-arreba eta senidetarikoz gurtziz: Eta zuk, irakurle, askari bat zanaren amaren alde. Pakean bego.

SARITUAK

Eguberrietarako Guraso Alkarteak egin zun norgeyagoka eder bat. Euskeraz ta erderaz ondoen idazten

zutenentzat sari aundiak eskeintzen zizuten.

Euskerazkoan txapeldun bertako bi nekxa txiki izan ditugu eta alegiarik multiko bat. Lenengo saria Mari Ero-na Kerejeta'k bere lan «Olo tuntu-na» dala-ta eraman du. Bigarrenak, berriaz, Inaki Begiristain «Asto itxu-a» deritzaiaz eta Irubai Sukia Arizmen-dik'k bere «Jainkoa 1969-garren ur-tean jaiotako balitz» deritzaiazakin.

Iru lantxoak astiro-astiro irakurriak ditut. Oso-oso ondo daude eta sa-yatzen badira, ez dira nolanaiko idaz-leak izango. Aurrera bada. Eta zorio-nak.

EIZTARIAK
Berriro ere ondo zamaturik ager-zaizkigu. Emen agertu dira bi ba-zaure aundi, basakatu eta ba-eun-do-ogel kiloko basautz gazte bate-kin.

Azurmendifteen Ordizi osoak iku-si al izan du oreifi edo basautz aundi eta zappi ezitarien artean «Ixa-pel Gorri» Biltokian ondo apalduz izan bear dute onuzkero. On egin daitzute.

ELIZ-ESKEA

Berriro egin da. Ederki gañera, izan ere zorrak anditxoak dira orain-dio egin diran lanak ondo ordaintze-ko. Gure elizberitza ez da utsean egiña ta.

Elizkide gurtziz orri bat jasoa de-gu. Ondo egiña eta dana argi azal-tzen duana. Bidezko da eskatze ori eta ueste det aldukan alduna egingo dunla baldinbaitere.

Eta gaurko Ordizi'k nai ba' du, ba-dezake. Eta dezaken ori ez dio eli-zari ukatuko.

1969-garango goraberak aurretik dira Ordizi'n: Jayo diranak 188; illak 66 eta 45 ezkontz.

ZOKZETA

Ayerbe dendariak zokzeta bat oi-dute urte bukaeran been erosleen artean.

Aurtengo «eun-da-larogel» zenba-kiak eramana du. Irabazle, Andre Erroxxari Irastortza izandu da. Bea-jondazula. Guk, datorren urteorkeari begira bearko. Eta bitartean gabe etxi bear.

AZOKA OTZA

Benetan izandu degun azkena, il-beltzaren zapiagarrenakia, alegia. Utsaren azpien sei-terdiraño je-txi bait zan termometroa goiz ortan. Utsaren lenengo azokari, azoka otza deitu genezayoko beaz, aurtengo neguko enpuki otzeta izan dan da. Saltsaille bati ortarean zerezamizkan berazki danak izoztu zitzaizkan. Ez da batera arizteko azoka exkasa izatea.

TXEPEX



Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatu
- Esne soila (esterilizatu)
- Esne autsa
- Esne-galifa
- Gurifa
- Yogur
- Batiduk

Igara euzoe - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) - DONOSTIA

MUEBLES

Bidarte

Avda. del Gral. Franco, 13
Urrut. 85 12 85

ZARAUZ

BONBOITEGIA

BEZUZAK

Lor

IGANDE TA JAIAGUNETAN IRIKIA

DONOSTIA

Hnos. Iturrino, 22
Urrutizkiña: 1 94 15

aizarnazabal

URTEBERRION

Asteroko onen irakurle guztiei eta batez ere errotari daniel; bertan bizi diranek eta errotari kanpora dabiltekin. Askok eta asko emen agurtu zaituztegu Eguberrialdi antan baino. Ala ere, berriro zoriondu nai zaituztegu lerro aben bitartez.

URTEURREN NAIGABETSUA

Bertan ditugu. Erriyari ondo daki zute nororenak. Jaunak berak pakean izan bitza biak. Guk, zor dieguten otoiiza eskehi dezayegun. Eta bien etxeak gure atsekabe-agur egiazko bat jaso bezate.

«EZ ZAN ATEJOKA ETORRI»

Ikusten an gñaden Abenduaren 21-garren egunez Donostiako Antzoki Zazparran. Eta etizizagun damutu. Ikusgarria bait zan. Gotik parre eragin zituten eta ezagun askori bosteko estutzezko zoriona izan genuruen. Orduantxe erosi nuan, bide batez, Etxalde ren liburu berria. Bere izena «Etxauren bertsoak gipuzkoaraz» da. Enago erostez damuturik. Patxada ederrean irakurri dit eta etxeakuei irakurtzen ari naiz. Pozik entzuten dute. Nere ustez emaketa-ko Pernando pamatuaren zertxo bat ba du Etxauren onak. Erosi gabe eluke euskaldun batek ere egon bear.

GURE TXALOK

Bijuzakio emendikatzen gurea edo erdi gurea degun Urtain burukalari berdingarriak. Ibañarriar indar-tsuak menderatuak ez duanik ba ote? Ogei ta laugarren garapena izan berria da eta, esamesak esames, orain arte beti kukurruko jo du. Arrayok ezaiztu, laister munduko txapelidun izatera bidean da.

Urtainen baserri albokua da, berri. Untzeta pelotari trebea. «Mellu» du baserriak izena. Emen au ere ia gureztar jotzen degu. Paris'en bi-zi da gaur, pelotaritzaga laga eta beste lanetan ondoko irabazten, dirudiaz. Asko pozten gela. An egondako bati entzuna naiz bere etxeko atean euskeraz itz abek daukela jarririk: «Euskaldun bazera, oti egin gabe sartu aurrera». Alako batfian orke agertuko gaituk, ba, Joxelu, ago zai.

Eta bitartean eta beti, giure txalorik mailtekorrenak artutik.

Eta arroxotu gabe elaxe irauin zak, etziak damutuko ta.

TXONTXOR

ikaztegieta

ASTE EITXEN POZGARRIAK

Auzteak, Eguberri aldiko biak, aste pozgarriak ba da.

Negu gogorren gauda. Ala-ta ere, naiz eguzki motela izan, naiz odol epela euki, danak pozik eta alai ikusten diran asteak ditugu.

Jaumaren Pake eta Alatasuna zuegan izan dituzutela.

GABON ALDIKO LAPURRAK

Ba, alaxe, Gabonetako lapurrak azaldu zaizkigu eta ugaldue ere bai. Iñun arripe eta ostu al izan dituzten gorosti adar eta piflu gazte adarrak eraman bait dizkigute. Jabearen baimenik gabe, jakina. Banakaren batzuek izan baldin ba ziran, tira. Baña eraman ezinhalako samak karreatu dizkigute, zualtz osuak ondutu eta alperrik galterario.

Dagon tokitik artu eta lasai-lasai saltzera eraman. Ta kaxo motelak, emen ez dek ezer gertatu.

Arreta geikeago artu bearrean gerra eta basterik ezean neurrik gogorrenak artu ere baita.

GURE TXALORIK BEROENAK

Bijuz gure auzerori Alegi'ra. Eliz-lanak ikusten izandu nazute-ta, zoratutik ekertatua naiz.

Ala diote baita ere, an izan diran guztiak ota batez.

Millioi terdiraio eraldi omen dutela entzun det. Baliteke. Gaur ez dago olako lanik nolana egiterik.

Nolatan al izandu dan? Ba, erri osuak benetan lagunduta, baita erri-tar «ixintxarriak» izan eta erbesteak bizi diranek ere.

Auzolanean jardun dutenak ere askotxo omen dira. Beroak izan an lan aundiak egin bait dira. Utsean garbiketa lanetan-da, emakume sail batek ongi lagundurik izan bear du gahera.

Beraz, erri osuak bat egin eta nai dutela esanda an.

Eta nai izanda, al izatea omen da. Zorionik sutsuak aletgitarre eta batez ere bertako Erretore Joan Martin Zubiarriain Jaunari.

Egutegi eder-eder bat ere erakutsi zitaden. Eriko Eliza berriaren argazkia dutek eta bertan itz auek: 1603-gan urtean jasoa eta 1969-garrenean zarberitua.

EUSKARAKO ANTERTZIA

Ikusten Tolosa'n izan gñan abenduaren 28'ez.

Bertako Oargitarak lan egin zuten. Iñaki Begiriztaren lan «Bizia bizi truke» txit ondo antzestu zituten eta uste gabe bi ordu joan zitazkizkiz.

Begiriztaren lan onak aurtengo «Gipuzkoa Sariak» ateratu omen du. Enai batere ariztzen. Zorionak berari eta antzelsari taldeari.

EULE

azpelti

Gabon gaua. Gure erriko kaleak, gizonetz beteak, tabernaz taberna, lanen artoko gabona ospatzen. Bede-ratiak aldiian, denok alai etxera.

Etxan karrozarik, ez olerizerorik. Gazte talde bat, kaleetan zear, abesten. Antxieta taldea bera, baña etzi-kan bakarrik an biltzen ziran beste gazteak ere, abesteko asmoekin, gelditzen ziranlan. Entzulerik etzala esan leike, denok abesten bai gñin. Abeslariakin batera beste gazteak diru eske beartsuen alde. Aurtan Kristo kale-jantzikin agertu zaiu. eritarren tarteen; erria berak zera-makin Jesus, abestuz ta beartsuei laguntza eskeñiaz.

Abenduaren ogeita zazpian, Sorea-suzinean euskal-ablesarien jaia. Itxaropen taldea. Zubis taldea. Ameslariak. Xabier Madina. Unai bikotea. Zorion, Saldias anak, ta era-kuse bezala Iñaki Linazasoro salatu ziran beren lanean. Zine-gelan txirri-ko bat ere etzan bete gabe ikusten. Txalo gogotgi jo gñin. Bukatzeko denok, txistularien laguntzakin, «Agur Jauna» abestu gñin. Jala Antxieta taldeak antolatu zituen. Benetan ari da lanean gazte talde au. Ba da Azpeltin musika-zaletasuna; baita ere musikariki ta abeslari egokiak. J. M. Altuna, Madina ta Unai bikotea aitatzea naikoa degu, ori egia dala ikusteko. Gahera, oietik kanpo, amuxte izen ez duten musikari trebeak ere ba ditugu. Gure txalo beroenak denontzat.

Errege bezperan ez degu Kabalga-tarik izan. Gabon ixillak aurtengoak Azpeltin. Egitzako gabonak ospatze-ko, ixilltasun giro ederra sortzen du; baña giro ori ez lantzea penaga-ri izango litzake.

ZUBI

baztan

Aurtengo Gabon eguneko ilunaba-reen Elizondo'ko karriketan bozka-ria nabari zen, bozkario sana eus-ko kutsua berakin zautela. Aurtan beñere ez bezala «Olentzero» festa izan dugu Elizondo'n, herriko gazte multxo bat euskal-abestiek kanta-tuz, txistulariek aintzinean eta «Olentzero» sofean zerametale, ka-riketz karrike biltiak dizi Elizondo'ko herria pozkarigote bete dutela. Den-bora berean Miserikordiarren alde ere eskea egin zuten neskatza gaz-teak atez ate sosa biltzen zabiltzela. Yendek ongi eman zuten eta Mis-erikordiak laguntza ederra izan du.

Gure herriko gazte erdaldundun biotzetan euskal giroa sortzean lan ederra da, euskal kantak erakustea eta oltura edo holek piztu araztea bai lan gogotsuarekin. Zorionak gazte guztiei eta gure goresmen bizenak irakasleari.

«Baztandaren Biltzarra» deitutako batasunak antolatutik ospatu da Eli-zondo'n. «Semana de la Juventud» deritzan kultura festa. Egin dituzte izaldiak, Gabon kantuetako Sarike-ta. Meza mudo berriko orkestariek eta azkenen festa bururatzeko, afa-ria ta dantzaldia Kasinon.

Gabon abestietako leiyaketak erre-kiste aundia izan zuten, kantari-talde aundit artu ziren eta denak ongi ari izanar dize. Lendabiziko saria Iru-ritarek irabazi zuten eta hoien ondo-ko Arrayotz, Elizendo eta Arizkun. Aurtan arteko ariketa Elizondo'ko neskatuek erabaki zuten. Sarike-tik kanpo Elizondo'ko Korala ere ari-zen eta hauen kantaldia beti be-zala, ongi apalindua eta denen gogo-koa. Eguberri besta hauen antolatzaleak har ditzatela gure goresmen bizen-nak.

M. IZETA

mendexa

Aurtan udan ura exkak izan do-gu; txarto ibili gara.

Erriko ura artuta euki dogunok aspaldiko urtetan ondo ibili gara, baña orain ete askok artu dabe, ta damentzako gixitxi.

Iru ilabeteik bein erdiko-etxe edo Antumamentuan oraindun egin bear ura. Nai beste dagonean or-daintzeak ez dau emoten aibeste tamaltasan, baña ura lau egunetik baten sukalden, eta jentea al dan tokietatik ura ekartzen. Oraindun bear danean istilluak!

Orain Olaldeko errekatik jasotze-kotan dabiliz. Lengo bitokio edo de-positua aundigotu, ta bertara mo-torarekin jaso.

Ura lengoa baño exkazagoa, baña aibeste izango dala difioz.

Orin idarra be exkaza daukagu: orain so urte ipinitakoa motor bat erabiltzeko gauza etzana.

Au be laister ipintzekotan dira, baña beti laister ipintzekotan, iru urte igaro dira.

ERIOITZAK

Zemendiarren 20'an il zan «Bix-ko» baserriko Tomas Kalpartzoro, 79 urte zituela. Eta egun berean, Berriatu'n bizi zan bere anaia Paulo, 71 urte zituela. Anaia bi egun batean, alaiari Ba-da naikoa atsekabe se-ndiarde baterako.

Zemendiarren 28'an «Penla-erri» baserriko Jesusa Uskola, 71 urte zi-tuela.

Euren etxeko ta sende guztiei la-guntzen dautsogo atsekabean.

TXAKARTEGITAR JOXE

arantzazu

MUTILAZARRAREN LARRIALDIA

Eurite gogorrik izan azarren, urbi-deak lortu, apurtu ziran, eta omen jayo zan otz-otozko erreka barriak naiko buruko min sortu eban etxetik, kanpoan ziranentzat.

Matsaren mama gozagoaz egaria il bear ebala-ta, etxetik urrindu zan mutilazaro adixide bat zan artio. Etxerako gogoa itzartu yonon. Ego-gien aurrean ur indartsua burrunba-

ri, eta etxerako bide-laguntzat, kol-koratuta eukana, basterik iñor ez.

Berrotetamarettik gorakentzat il-luntzezko bustialdiak gozok ez-badi-za, aslozaz garatzagoa da busti-bu-ti egin, norik legortu ez, izara leitu biren erdira sartu ta dardarka, baka-ririk gaba emoteak.

Zer jazo ete zan nire adixkideagaz, lumarrotuta egoan gizon bakartia-gaz? Emakumea zan errukitu zana. Eskuburdirxoaren ganean jarri eban, aupai esanda, euritaraokoa be emon eutsan eskura, zabalduta. Eta gure andrazkoak, eritarren txalo bero-be-roak entzuten zituan artean eta Mo-isea aurrean arturik, abeti eban be-launetatik gora zan erreka barri eze-zauna.

Beste gizonetako bat be ba-zan, ia eun kiloko beraren ematea bizka-rran ebala, estu ta larri, izerditan etxeratu zana. Baña... tira. Larria-diak, alitu ziran; ule-artze edo adar-jotek, eguneroko ohi bihurtu. Iñor ezan ito, gurutzarik jarriberrik be-etzotzu izan. Eskerrak, maila aldi-z, Goikoak.

ESKU-AGIRIA (erregalua)

Urak iruntsiteko arrisku gorrian egon zan mutilla eriotzatik azkatu eban andrazkoarentzat dominatxo bat erosi ta paparrean ipinitokotan dira erriko ta inguruetako mutilaz arlotek.

EZKONTZA

Juantxu Berasaluze (Igorre'koa), Manolo Txankaitze'ren aolku (conse-jo), irakatsiak eta aginduk ondo be ondo entzun ondoren, makurta da, Zeberio'ko neskatilla laguntzat aru-rik, ezkonbaltzarrira. Zori onak le-ge dazgela.

Iñak'k, Peit'k eta P. Luis'ek noz artu bear dauksue Pautxu'ren bi-deak? Lotsa ala astirik ezagatik ete daukaz ain bakarrik? Astirik ezagatik ete daukaz ain bakarrik? Astirik eza, erabagi dogu; lotsarik ez izan. Zeruko Argia onen orrialdeak zabali-koz edozar laguntasan emoteko. Egin zaitze arpiduden eta laster egingo zarle «gizon gazte».

A. LANDAJUELA

galdakao

AZTI BAKALDUNAK

Bakaldun Deunak edo Azti Bakal-dunak (Reyes Magos) eguna dala-ta aurregunian, arrats beranduan zal-di-keta, kabalgata bikain bat ospatu zan bertoko gaztedik aleiz gizonan la-guntzaz eta agintarleen on-klusaz antolatuta, Zuzatko ko auzumetik asi-ta, txalde nagusia ziar erriko aspe-rikantzara, umetxueen arrigarriztat eta, jakina, gurasuan pozgarritzat, euron umetxuk irribarrez ikustien. Enperantzen gosokiak zabalduez, adi-men atzeratuko (subnormales) umet-xueen ikastolara eldu ziran, ume-orrei sari pozgarri batzuk zabaldute-ko.

Aipatu dogun zaldiketa, etzan le-nagoko eran legez zaldiz aurkeztu ziralako Azti Bakaldunak, berebillez baño, naite erriko berebillez txike-riak edo apalenak izan ziran. Eban biarrian gogoz, arrokeri barik eta po-lito gertuta eguala zaldiketa guztia: aurrenengo Ume Josutxu'n jalo-tza gurdibil (camion) andi baten notin biziakin polito antolatuta eta atzetik, Bakaldun bakoltza «beren» berebi-llan albuatan «trompetari» ta guzti, guztia, zetan esanbez, aldi artoko erara jantzi-ta. Eban dogunez, guztia polito apalinduta, tamala izan zan eu-ri-lanpara egin ebana zaldiketak irauin eban aldi guztian. Ederto ger-talariek!

IBILKETAK

Urte berria asi daneko, asi dira gure mendigizaliak euren urteroko leiyaketak egiten; goiz jagiten danari Jaungoak lagunduten ei dautso ta, eurok esatera ori aintzat artuta edo, bizkor asi dira geroko itx barik; ta, gahera aurtan gure Ganguren men-digoizale taldeak ziderrezko kua-tzak ogeita bost'garren urtia ospa-tute dabenaz, urtik diralako sortu-za, iñoz baño gelago ta obeto ibi-li bira ei dabe gure neska-mutil gar-bi kementsuak... aurtan eukiko ei-dogun negu gogorrik itxiten ba'dau-tse izango, edixkide mailak. Gu beintzat, benetan poztuko gintzakez orain urte mordo bat, Ganguren'ek mendian euki eban mallara elduko ba'ltzakez gaztedi barria. Arrokeri bariko zaletasun benetaku ipinten ba'dabe, urrin eretsiko, elduko dira? Aurrera muti-neskaki, urtetako loi-kerietatik alde eginda zindugio ja-rraitu zeizkie-ta.

BASA-JAUN

beasain

EGUBERRIAK

Gabon egunean talde asko ibili zi-ron abesten. Haurrak eta gazteak egunez eta gazteak ilunabarren. Haurak berealdiko taldean. Larogei bat ez ziran urturi izango. Zagi-dantzaz ere dantztatu zituen. Bi-arroza apain ere agertu zitziguten. Bata Olentzero-rena eta bestea Jaiot-zaarena. Lehenengoak tamalez, guprik bat ustuta gertatu zan eta kale-erdi-tik itzuli behar izan zuen. Ez zuan horixe merezi. Beajondeizutela gaza-ekal.

Hala ere zenbait gauza zuzendu leizke. Esate baterako Udaletxeari hitzegiri ordu horietan izaden den trafikozko jabetzako. Aurtan autobus batek eskandalo izugarria izan zuen. Gazteak abesten eta bera tu-turua jotzen. Herri-zainak parte hartuko balite gazteak dabilan in-guruan, mesede izugarria egingo lie-teke.

Errege bezpedan berriz kabalgata bat ere antolatu zan. Nahiz eta Erregeak berebillean joan, zaldiz joan beharrean. Haurtzaro izugarria bildu zan herriko enparantzeapen baina inoiz gertatu ohi dan bezala, aurtan ere mikrofonuak ez zuten lanik egin eta putz-ka aritu aurtan inork ez izan ita n hitzegiterik!

HERRI-MEZAK

Honela deitu dezaiekegu Gabon-zahar eta Errege bezpera egunetan eman diran Mezak. Gazte batzuek gosoz aleginduta dira eta upiak ar-tutzu artu dituzte. Oso Meza jatorrak benetan eta jakin dudanez aurre-runtz ere jarraitzekotan dira. Orain herria apur bat ohi-tzea falta zaizue, balua herriak banatu ezker (azke-nekoan bezala) ez dago eragozgarri. Jendeak bereala ikasko ditu. Joka-bide jatorrak Zorionak!

JAUREN 1-GO MARGOLARI IXAPELKETA

Santo Tomas egunez ospatu' zan «Club de la Amistad» elkartek antolatutako «Haurren 1-go. Margola-ri Txapelketa. Aurrezki Probitiaz-ko» babestu zuan. Lanak Eguberri egunean agertu ziran eta jai hauenan herriko eskarartetan izan ditugu gure begien atsegigarri. Hiru mi-latan banatu zituzten haurrak. Le-henengo maila, 3 eta 4 urtekoek osatzen zuten. Bost lehenadibizikoen izenak aipatuko dituz; bestela ize-nik ematerik ez nuke izango. Be-raz maila honetan hauek izan ziran bost lehenadibizikoak:

- 1-go. Jose Manuel Zabaleta.
- 2-go. Loinaz Lasa.
- 3-go. Ana Isabel Garin.
- 4-go. Arantza Arambur.
- 5-go. Elizabet Muñoz.

Bigarren mailan, 5, 6 eta 7 urte-koek sortzen ziran. Haurrak, 4. mek izan ziran bost lehenadibizikoak:

- 1-go. Ana Isabel Sanchez Jau-regui.
- 2-go. M.ª Eujenia Arraza Chasco.
- 3-go. Iñaki Barandiaran.
- 4-go. Jose Ignacio Garcia Norie-ga.

5-go. Juan Martin Querejeta.

Eta hirugarren maila berriz, 8 eta 9 urtekoek osatzen zuten. Ona ondo-ren bost lehenadibizikoak:

- 1-go. Juan Alberto Bergerandi Hurtado.
- 2-go. Anjel José Fuentes Pecoc-he.
- 3-go. Miren Abad Mendia.
- 4-go. M.ª Immaculada Gómez de Segura.

5-go. Luzio Retana Garmendia.

Egia esateko, arerra izugarria izan du txapelketa honek. Hiruheren haurrak parte hartu zuten. Horik kanturak ateral Herriko ikasietze guztietatik sortu ziran margolari tsikiak. Sariak. Aurrezki Kutxak banatu ditu. Guztiei zerbitu. Ekin-tza jatorra benetan! Zorionak anto-latzailei eta urratu duzutenak ja-rraipena izan dezalal Eta bukatze-ko, jakin bezate zenbait komplejo-dimek, Ikastolako haur askok artu zuten parte eta beste edozein ikus-tetxeren pareko geratu dirala; au-rrerik idatziak izan horietan, ba-tzuek ikastolakoak diranez. Beraz horrek adierazten digunez, etorki-zun ona dugu gure Ikastolako ira-kaskintzakini. Eta aurtengo urte ho-nen bukaeran bigarrena ospatu de-dila.

MURUMENDI

3AR - RESTAURANT

AURRERA
DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Jrbleta, 12 — Urrut. 12578 - 11528 — DONOSTIAN

ERLOJU TA BITXITEGIA

Edoardo Chopeitia

Vergara, 11 - Urrut. 11751 - Etxekoa: 22700 - DONOSTIA

JOXE MIGEL MAIZ, euskal korrikalari bat

“Nere biotz guztiakin egingo det korrika”

“Zuek zuen oiuekin bizkortzen banazute, gauza ondo joango da”

Joxe Migel Maiz, baserritar jatorria degu. ZERUKO ARGIA'rako itz bazuek eskatu dizkiztenezan, irripar batekin erantzun dit. Anoetako platan korrikalari talde bat illunean estali da.

—Nola zaude, Joxe Migel?

—Ez oso ederki, Ola-ola bakarrik.

—Zer dala-ta? Lasartera joango zera, noski...

—Bai, joango naiz bañan ez nago nere onenetan. Aurren nik nalgao nuan Lasartera ez azaldu bañan azkenean, nere lagun eta ezagunak animatu naute.

Joxe Migel'en atotik olako gauzak ateratzea ez da erreza. Maiz kirol-zale gogor ta bikaña bait da. Orregatik, arazo txar batean sartua dagola iruditzen zaigu. Zer edo zer gertatzen zaio mutilari, ola mintzatzeko.

—Ez al da ala, Joxe Migel?

—Bai, oso arazo txarrean nabil. «Federación Atlética Guipuzcoana» dalako ortan ez det laguntza askorik arkitzen. Problema auxa da: Astirik ez badezu, ezin izan zera korrikalari ona. F. A. G.'k bere laguntza guztia ikasle gazteek emanen die eta langile geranok deportea egin nai badegu eta ortarako gure lanetik bear ditugun orduak kentzen baditugu, oraingoz, dirua galduaz egin bear degu. Or dago koxka.

Joxe Migel'ek ez ditu itz auek asarretuta esaten baña bere abotsak min-kutsua azaltzen du.

—Begira: —dlo— Ezkundu aurretik, zortzi orduko lana eginda naikoa nuen, konpontzen nitzan lan-sari arrek. Ezkundu ondoren, ordea, gelago bear det eta amar orduko lana opten det. Leheno, pikta bat salatzeko astia ateratzeko zaila baldin bazan, orain ezinezko lana da.

—Ordun, Joxe Migel, kirolerako astirik babe gelditu zera...

—Bai, Eta problema au ez da nerea bakarrik. Langile guzien problema baliz, deportea egin nai badute. Orregatik, F. A. G.'kin itzegin nuen, alegia, langileek ezin gerala «amateur» izan, Federazioak ez badizkigu ordaintzen lanetik gaitzen ditugun ordu «extrak».

—Bañan «amateur» korrikalariak ezin dute dirurik irabazi...

—Ori bera esaten didate. Bañan nik eta nere egokieran daudenak, ez degu dirurik irabazi nai. Deportekin, lanetik gaitzen degun dirua bakarrik eskatzen degu. Ez da asko eskatzea, nere ustez. Kirolak ordu asko eskatzen ditu eta guretzat beste lan bat bezela da.

—Ez al dezu beñere «beka» ren bat artu?

—Bai, Txiki bat artu nuen orain dala urte terdi: «Federación Española de Atletismo»-k eman zidan. Bañan beka au norbalten izena ta egokiera oso goien daudenlan bakarrik ematen du. Pikten bat jeixten bada, tximistak egiten kentzen dute beka.

—Eta gero, bertako Federazioa joan diru pikta baten billa, eta danak ezezagokitasunak azaltzen dira. Ikusten denez, gure lurrean ez da kirolerako paraisorik. Joxe Migel: gipuzkoar gazte artean ikusten al duzu biko korrikalari onik?

—Bene-benetan, ez. Deporterako baliu duten gazteak badaude, bañan ez dute laguntzarik arkitzen. Gazte batek zer egin dezakean galdetzen badit, zer esango dion? Egia bakarrik, eta egi au ez da oso pozgarria. Deportea nuen eginiñ ez daukagula. Erri aundienetan pista onak balirake. Gipuzkoa oso kirol-giroa zeoro aldatu ta obetuko litzake.



Joxe Migel Maiz, Lasarterako egiten ari dan salaketa baten ondoren.

—Au dek, au, gure giro kaxkarra. Ala ere, Lasarten ondo geldituko zeraia uste degu.

—Alegiñak egingo ditut, bai noski. Lurra lotua balego, obeto neretzat. Txikitandik baserriko lur busti ta bigunak ondo ezagutzen ditut. Lasarten Cross irabazi nuenian, lurra bustia zan.

—Eta Lasarte ondoren?

—Datorren udaran, abuztuan, «Campeonatos Nacionales» en joan nai nuke. Ortarako, «Club Deportivo Zarauz»-ek nere arratsaldeak lanetik libre atera nai ditu, berak nere lan-ordu galduak ordainduaz. Orreala, txapelketa oietara egokitasun onean iritxiko naizela uste det. Lasartera olako forma onean joaterik ez det. Berandu da oso. Ala ere, nere biotz guztiakin egingo det korrika eta zuek zuen oiuekin bizkortzen banazute, gauza ondo joango da.

—An ibilikio gera, zurekin, Joxe Migel: oliu, irintzi ta karraxiek, abotsa galdu bearrean. Zuk eutsi ta gogor jo.

XABIER ARCELUS


“H”-ZALE, NI?

Bizkaiko «ANAITASUNA» amaboskarian nere Oresa'ko itzaldia «atxez» jositako azaldu dala-ta, «ZERUKO ARGIA»-ren ainbat irakurle ta idazle arriurik eta asarre antzean zuzendu zaizkit ni ere «H»-zale egin al naizen galdetuz. Au itzulia, jaunak!

Nere galdetzale kardabatuak (preokupatuak) jakin bezate: «H»-kin euskeraz idazten ez dedala ikasi nik oraindik, eta itzaldi ori «atxez» jositako argitaldu bada, ez dala nere egitekoa izan, argitaldu duanarena baliz.

Oar au, «ANAITASUNA»-k berak egin bear zuan, argitaltze orduan; gipuzkeraz (ez bizkaieraz) «H»-rik gabe idatzia jaso bai-zuan nigandik.

ZELETA



Loteri ta kiniela aroan gabiltz. Igazi dan urtean, ur-urtean nabaitu nabazan zorion orreik.

Gabonetako zozketatik 400 milioi etorri ziran bizi nagan kale-ingurura. Auzokiderik asko euren yantzi berri ta buru tentez, ikusgarri ziran. Ez zan arritzeko; goizetik-gabera urritasunetik ugari-tasunera aldatzeko izango dau berea. Milioi bi, iru ta lau yaso ebezenak eurrez izan ziran.

—Iñio! «Zoriona» ointxe urrean dabil ba— esaten gendun inguruan bizi garanok—, eta gure be yokatzen asi gintzazan. ¡Al-perrik baiñal! Loterik beti urtzen ei dautso norbaiteri, baiña norbait ori bestea izaten da beti.

Illabeteren buruan, eta geure tellatuean, atean bertan dogun Bar'ean, alargun eta bezero batek, amalauro kiniela igarri eben, eta ez zan azaldu beste igarierik. 32 milioi biezako. Ordunbeste uste izan gaban, dirua eskilaran-gora asko zala. ¡Leku onean!


Gu makur; loteridunak burua tente. Baiña oniek be, kiniela-koren aurrean apurtu bat makuru eben euren burua. Euren artean be sortu zan oro gelagoren erromeria.

Kiniela ori igarri zanean, ba'zan antxe argazkilaria, izparkeria, telebistari ta... tari ugari! Itxi egin bear izan eban alargun arek edarriegia. Eta yakina, gaur are.

Neuk be itxiko neban zeuk ez ala?

Bi zorionsuak apurtu bat baketu ziranean galdera batzuk egin neutsoezan:

ITZ GURUTZETUAK



ZEARRETARA

1. Txerri-korta. — 2. Eguna sortzean. — 3. Zarratatu. — 4. Aisa, xamur. Eta. — 5. Zikiri, ordotx. Ekin, abiatu. — 6. Ereiteko soroa. (aa) abereen tropezia. — 7. Kanpotik. Goibela. — 8. Iragarle. — 9. Erat egatzen dan egaztia. — 10. (aa) Kea berekin.

GOITIK BERA

1. Egaztiak litzea. — 2. Urrun, lekutan. — 3. Oitoiz. Zu ta ni. — 4. Urgun, maingui. (aa) Lurrin, usain. 5. Joan dan urtean. (aa) Erre, sortarazi. — 6. (aa) Ugalkor atzikiak. Itxas-orratz arrala. — 7. Utsarte, zulo. — 8. Errez, xamur.

AGERPENA

ZEARRETARA. — 1. El. — 2. Argi. 3. Urrutu. — 4. Errez. Ta. — 5. Iren. Asi. — 6. Zun. uku. — 7. At. Ituna. — 8. Igarle. — 9. Usoa. — 10. Us.

GOITIK BERA. — 1. Eliza. — 2. Urruti. — 3. Arren. Gu. — 4. Iren. IasU. — 5. Igaz. utroS. — 6. It. Akula. — 7. Utsune. — 8. Aisa.

—Zer nabaitzen da alakoetan?

—Ain zalla zan kiniela artan amalaurok igarri gebazala yakin gendunean, barru-zarrada andia. Geroko iru egunetan ez yan, ez edan ez lorik; beste iñor geiagok kiniela ori igarri izango ete eban pentsetan. Urkoa malte bear dala esaten dogu, baiña orduan ez gendun beste igarierik ikusi nai.

Diru-etera erutana gaban zori-eroko txantel ori, ta andik, ez zala beste igarierik azaldu esan euskuenean. . nasai-aldi ta sinis ezindako zorion andia, diruakiko eragospenak amaitu zirala yakitean; batez be nik, bost seme-alabaren ama nazen alargun onek.

Ondoren, millaka idazki yaso ebezan. Neuk be irakurri nabazan pilla bat. Geienak mixer ta negarra erioenak. ¿Zenbat oñaze! ¿Zenbat ez bear! ¿Zenbat kalamitet! Gexotxeetatikoak ziran geienak. Batzuk egizkoak; bestetuk guzurrezkoak. ¡Dan-dak diru eske!

Eri ez egozanak be ba'ziran eskale, urkoari lagundu egin bear yakola uste ebanak kontxiku, diru batzuen kontura irabazpide andiak eskiniñaz. Batek bi milioi eskatzen ebanan, illabeteren buruan iru itxultzekotan. ¡Je!

Orain, loteri ta kinielako zorionsuok or dabilz zurikeri, bizkar-igurtzi ta agur begikoak yasoaz. Euegandik zerbait itxaroten dabilelako? Eztaikit, baiña auxa gauza bakana! Mundu guztia ordaindu oi dautsie gazigarri naiz edariren bat.

Bitartean, ez loteri ta ez kiniela igarten ezogunok, geure

sakeletik ordaindu bear izaten dogu, zurrutada makxal bat egitekotan.

«Zenbat daukazu? Orrenbeste balio dozu». «Eztaukonari ezin atara: daukonari parra-parra», ¡Si, si! Mari ñasli!

Uste orretan dagozanak oba izango dabe iko-genetik yatsi ta mizpiraz-pian dagozan garauak batu, etxera erroteko. Usteldutakoan gozoago izaten dira. Baiña ori, mizpiraren berezitasun bakarra dozu. Geure izkuntzari be alako zerbait yazoten yako: Zarrago ta gozoago.

Ikoak eratxi ta mizpira landarak zutitzen asi bearko ote gara ba?

Bearreko dana egin dagigun.

Baltsu batek, Empresa batek, bere zabalgunderako bialdu daustan orria, alan izenpetzen dau: «Estudio Economico eta Sociológico de Aplicaciones Zentroa». ¡Bapol!

Batzuek darabilen euskerara ulertzeko, erdora asko yakiri bear zala esan ebanak, ez eban guzur andirik esan.

Pillaka yaso dodazan zorion-egurrei, lerro onen bitartez, neur eskarra ta maitasuna. ¡Gora zuek!

Gora baita be, Yosu Aurtxoaren irudi otsana dakarran Zoriona bialdu daustanori. Oso polito ta oso laburkio auxa esaten daust: «Jaungoikoak argituko hal di zu adimena».

—Bahita zehuri here.

ABELETXE

“LOYOLA” LIBURUAK

□ DICCIONARIO CASTELLANO-VASCO. Plácido Múgica, S. I. 590 peza.

□ IDAZTEUNA. Itun Zar eta Berria. Biblia OSOA euskeraz. Aita Olabide'k euskeratua 300 .

□ NONI ETA MANI. Svenson. (Aita Muxika'k alemanetik euskeratua). Umeentzako batez ere irakurgai zoragarria 40 .

□ MENDIKO ARGIA. Franz Weiser. (Aita Muxika'k alemanetik euskeratua). Gazteentzako batez ere nobela eder-ederra 50 .

□ EL VERBO AUXILIAR GUIPUZCOANO. Gipuzkoa'ko Euskal-Aditz Laguntzaile OSO OSORIK bi karlinietan. Aita Muxika'k eratu. (BANAKA edo ALE GUTXI erosten diranean, sellutan ordaindu ditek). ALE BAKOITZA 6 .

□ AFJOS VASCOS. 800. (ZORTZIREUN!!!) eusgizki (geienak ATZ-IZKIAK dira). Aita Muxika'k bildu ta adibide ugariz azalduak 30 .

Nai dezun liburuaren aurrean gurutze (+) txiki bat ipini zazu, eta bialdu txartel au ZERUKO ARGIA'ra. — Oquendo, 22. — SAN SEBASTIAN. Artzean ordaindu bear dezu.

IZENA ZUZENBIDEA ERRIA Probintzia

holanda'ko eliz- artzantza batzarra

gotzaiek ez dute erroma'kiko artue-
manak geiago gogortzerik nai.
ezkonduek apaiz izan ditezke. ema-
kumeak ere izan ote ditezken.

Holanda'n, La Haya'tik 25 kilometroa, Noordwijkhout'ko apaizgaite-
gian bostgarren eliz-artzantza batzarra bildu da, igandez, ibeltzaren lauan.
Jainkoaren Erri osoaren ordezkariak bildu dira: Kristau soil, apaiz, prai-
lle ta gotzai. Len ere beste lauretan batzartuak dituzte, beste gai batzuk az-
tertzeko.

Aldez aurretik parroki ta eliz-barruti bakoitzean aztertutako sakondu-
tako gaitz daramazkitez eztabaida ta alkar-izketarako. Parroki ta eliz-barrutiak
billerak ta alkar-izketan ondorio bezela bi agiri aurkeztu dituzte oraingo bat-
zar nagusi ontara: apaizduri buruz bata, prailledari begira bestea.

Garrantziko iur eskabide daude agiri oietan beren gotzaiel zuzendutak:
1) Apaiz izatea ta ezkonke izatez ez daudela nai ta naiez alkarri loturik eta
apaiz ezkontueri ere eman bear zaiela eliz-lanetarako bide. 2) Emakumeak
ere apaiztu bear lirateka. 3) Elburu ta asmo berdintsuak dituzten prailleak
bat egin bear luketela.

Iritzi guzietakoak bildu dira batzar ortan. Izlari batzuk, esate baterako,
lengo apaizkera txalotu duten bitartean, besteak gogor salatu dute.

Erdi-bidetik ibilli dira gotzaiak beren artzai-erakutsian. Apaizgintzako
sakramentuari buruz geiago sakontzea eskatu dute. Gizonetakoak bakarrik
izan dirala apaiz oraindano, esan dute. Apaiz izan dan emakumerik ez dala
ezagutu, aitortu dute. Baia ez dute, izan ditekien, ukatu. Emakumea eliz-
lan guzietarako onartu bear dala balaztu dute.

Zortzi gotzai bakarrik daude batzar ortan. Gañentzeakoak kristau ta
apaizkiak dira. Ez dute autarkirik ematen gotzaiak.

Goztaiek ez dute Erromakiko artu-emanak geiago gogortzerik nai.

Izan dira tarteka eztabaida ta alkar-izketa beroak.
Apaizgeak, ezkontzeko edo ezkontu gabe gelditzeko, askatasuna
bear dutela erabaki du Holanda'ko eliz-batzar onek. 90 autarki alde, 6 aurka,
10 utsak.

Ezkontzeko askatasun onekin ezkonke izatearen aunditasun eta balioa
nabarmetzen dirala ta ezkonke iraunaztea giza-askatasun eta giza-eskubi-
deen aurka dagola esaten auzartu ziran norbaitak.

Apai izan aurretik batek ba-dakila zer loturen jabe egiten dan erantzun
ziran Rotterdam'eko gotzaiak. Alfrink kardinalak, berri, ezkontu edo ez
ezkontu, apaizgaiel aukera emateak, apaizak ugarituko ditun ala ez, galde-
tzen du.



Eskui-aldean, Alfrink kardinala; erdian, Zwartkruis gotzai, ta bere ondoan
gotzaiak, Holandako Eliz-artzantza batzarra bitartean.

Ezkontu nai duten apaizel, baldintza batzuekin, baia ortarako baimena
eman bear zaiela erabakitzen da. Amsterdam inguruetako parrokiatan, apaiz
ezkonturik nai duten ala ez galdetuz, billerak egingo dira. Dagoneko ba-
daude bost parroki erretoretzako apaiz ezkontuak artzeko prest daudenak.
Ala dira osatu beintzat.

Ez Erroma'ri, ez Aita Santuari, ez munduko gotzai-elkarteari etzizaien
atsegin Holanda'ko eliz-artzantza-batzarrak gai au azterteaz. Ala dirudi.
Aita Santuaren ordeko dan Angelo Felici ez da joan beintzat batzar ortara.

Ala ta guztiz ere zabaldu diran nolabaitko zurumurruek garbitzen
saiatu da sarrerako itzaldian Alfrink kardinala. Paulo VI'nak ere itz auek bi-
dali dizkie batzartuei: «gogoz jarraituko ditut zuen eztabaidak. Zuekin izan-
go dituzte egun oietan nere burutapen eta otoiak».

Eliztarrek, zuzenean eta tartekorik gabe, Aita Santuarekin beren alkar-
izketa ta artu-emanak eukitzeko eskubidea dutela Aitortu du Alfrink kardi-
nalak.

Ta garbi utzi du batzar onen elburua: Holanda'ko eliztarren Iritzi ta era-
bakiak berri eman Aita Santuari, bein ere onen legoak zapaldu gabe. Aita
Santuaren aginpea ukatu gabe beste agintekora bat bilatu Elizaren bar-
ruan.

Izan ere Artzai bakararen menpean egoteak ez baidu esan nai ardi
bakoltzaren izaera, nortasuna, askatasuna, irizkera ta eskubideak desegin
bear diranik.

Holanda'n Eliz osoak pentsatzen eta erabakitzen du. Ez gotzaiak eta
elizgizonak bakarrik. Baia Eliztarrek ere. Dirua eskatu bear zaienena ba-
karrik, danok gerala Eliza, esaten diegu guk eliztarrei, ez pentsatzerakoan,
itzegiterakoan eta erabakitzerakoan.

Oraindik ez da sortu gure artean artzantza batzorderik. Elizgizon eta
eliztarren batzorderik, parrokiak eta eliz-barrutiak aurrera eramateko. Diru
kontu ta ondasun erabaltzek ez daude oraindik eliztarren esku. Elizkizun
eta itzaldiak eratzen ez dute parterik artzen. Ez dute apaizak aukeratzekoan
edo kentzerakoan ia itziki.

Ba-dakit zu guzia zalla baño zalagga dala. Baia bear bezelako aleginik
egiten al degu? Noiz Euskalerriko eliza osoak pentsatu, itegin eta era-
baki du? Ortara irixten ez geran bitartean ez dago Euskalerrian Elizarik.
Dana esan, dana egin, eta dana erabakitzen duten elizgizonak bakarrik egon-
go dira.

M. ATXAGA

batikanoa, 1969-garren urtean

1969'garren urtea ezker, Aita
Santuaren ekintzak, Munduko Pake-
Egunaren ospaketa-inguru biltzen di-
ra. Pake-Jaiari begira asten da ur-
tea ta aren oroinenez eta ekizez di-
joa urte guzia azkenerarte.

1969'garren urtean, Pake-Eguna
«Gizonaren Eskubideen Goraizta, Pa-
ke-Bide» bila ateratzeko artu izan
da. Alde guztietan, Egun au goraizta-
tua da ta 96 Nazioak eintzat artu du-
te 1969'garren urte orretan, Nazio
Batuetan aizatutako «Giza-Eskubi-
deen Pake-Eguna».

Era guzietako Batzar eta Billerak,
otoitz, ibilduen eta Gobernuetako
Lendakariari itzaldiak... Korean Fili-
pinasetan, Burundin eta Ugandan,
Aita Santuaren esanak bere pixu gu-
zian artuak izan dira. «Giza-Eskubi-
deen Pake-Eguna».

Ibiltzaren 1'an, Paulo VI'garrenak,
Ara Coeli'ko Elizatik bere Itza za-
baldu du. «Pakea ta Kondarrik elkar
jo dezaten alegin batera».

Abenduaren 10'an, 1970'garren ur-
teko Pake-Mezua zabaldu zuen Aita
Santua. «Adiskidetasun-bidez Pake-
bila ateratzeko dela egin zigun».
Poliki poliki, «do», Indar zaka-
raren orde, mundu osoan leku egin
bear zao «Mundu Guzikio Maitasu-
nari» «PAKEARI» alegia. Paulo VI'
garrena, «Pake aldeko Burrukalari
jator» agertzen zailgu.

PAULO VI'GARRENAREN IBILAL-
DIAK — Urtea ari zaneke, Aita San-
tua, egin bear izan ibilaldia go-
guan zegoen artean. Tarento'ko
errian, Elizako Buruzagia, langile-
munduarekin batua zan burni-lantegi
audientetako batean.

Elizak etzuan Lan-Munduagandik
etena irau bearrik. Dirugabeak
gizarteak gerago ta geiago batu
bear zuen Jesukristoren jarraitzaile-
kin. Eta 1969'garren urte orretan,
Paulo VI'garrenak Sultara ta Ugan-
dara jo zuan bere ibillan. Ginebran,
mundu aurreratuaren arpegi eta ar-
kitu zuan. Ugandan, mundu xea-
ren alde bero ta erlijiozkoa bidera irten
zitzaion.

Baia Ginebrak beste arpegi bat
ere agertzen diegu: an baitago Mun-
du guzikio Kalbinoen erakutsien
Uriburua, ta Elizen Aolku Batzordea.
Onela Eliza Katolikua, Batzorde orre-
kin ar-emanetan sartu da Aita Santu
bararen ekizez.

Bide batez, Munduko Lan-Eraketa-
ren deiari erantzunaz, Aita Santuak,

Batzorde ura sortu zuan Albert Tho-
mas, guzian aurrean goratzen du.
Era berean, Munduko Elizen Aolku
Batzordearen tegira, joanaz, Aita
Santua izan duan etsarik audien-
taren ekin guzikia, ezterala kaltega-
rriak, adierazi dugu.

Abuztuaren, Daguennillaren 2'an joan
zuan Paulo VI'garrena Ugandara, bel-
tzen alderdian. An ospatu zituan iur
egun argi, jende xea-ren biotz-galde
artuaz, Aita Santuak, Afrikako jakin-
tza zaarrei bere omen-agurra egin
zien. Ugandako Kortetan garbi itze-
gin zuan, bere ongietorria zabalduaz
beltzen lurrari. «Afrika berria,
—esan zuan—, joandako urte zarre-
tatik atera ta aldi berriari begira ja-
ria danez, emen agiri da jator. Ai-
torpen onek izan dezala mundu gu-
zian, bear dan erantzuna, etorkizu-
nari ate zabalak idekiaz».

Baia batez ere, Ugandako egun
auk Afrikako Elizarentzat eskeñiak
ziran. Elizaren Katolikotasuna aitor-
tza joana zan Paulo VI'garrena al-
de aletara. Eliza Katolikua, ezala,
alegia, Italiarra, ez Europarra; mun-
du guzikoa baizik. Onela, bada, Li-
turji ta Artzai-lan saillean, egokiera
bat egin bearra daukagula, beltzen
munduaren aldera gauzak antola-
tuez.

Andik itzultzerakoan, Aita Santua-
ren biotza poz-giroetan jarria degu:
«Nere eginbideetan au izan dot poz-
garritetako» adierazi zuan.

1969'garren urte barruan Erroma-
ko Elizak inoiz ez aiaa Kardenal iku-
si ditu izendatuak: 33 Kardenal be-
rri ditugu orain. Auekin 134 kardena-
letaraino iritzi gera Eliza Katolikuan.

Eta oraindik or gelditzen dira beste
bi kardenal «xiliekoka». Beraz bi
auekin, 136 kardenal ditugu guzira.

Elizako buruzagi auk, 47 lurralde-
etatik inguratu dira. Egia esan, orai-
dik Europakoak 83 dira bai; baia
gerago ta geiago zabalitzen ari di-
ra beste lurretakoak ere. Amerikak
baditu 31 kardenal; Asiak, 11; Afri-
ka, 7; Ozeaniak, 2. Italiakoak
beste aldetik, gutxitzen ari dira: iur-
tik batera ere ezitira iristen karde-
nal italiarrak.

Apirilaren 30'an izendatutak izan
ziran kardenal berriak eta egun are-
tan adierazi zien Aita Santuak bere
Idazkaria ere aldatzekotan zala. Ci-
cognani kardinala, urtez aurrera bai-

tioka; aren lekuan Jean Villot pran-
tziarata izentatu du kargu orretara-
ko.

1969'garren urte au, gañera, Si-
NODO-Urtea izan da. 1968'garren ur-
teko Abenduan, Pazku-zorionak es-
keintzera zijoazkion kardenalek, Go-
zai-Sinodo aundia biltzekotan dala,
adierazi zien. Ta ala egin ere, Urri-
llaren 11'tik 28'ra bitartean irau-
zuan Gotzai-Sinodo arek. Aita San-
tua maiz agertu zan billerata. Si-
nodoan, Gotzai-Biltzarra ta Aita
Santuaren elkarreliko ar-emanak
neurtu ta izendatu ziran.

Eta oi dan bezela, ezitza azkene-
rafin eramanak izan gauza guziak.
Beti ere, batzuentzat erdi-bidean
gelditu dira erabakiak; beste ba-
tzuentzat, berri, etzan komeni au-
rrerago joaterik.

Eta azkenik, beste gertara batek
ere ekarri digu billera berri bat.
1967'garren urtean eskatua zan bil-
le-
ra au, ta an batu bearrak ziran mun-
du guzikio teologuak. Mundu guzikio
18 gizon jakintsu bildu dira Biltzar
orretan.

Aztertzeko gaien artean nagusi-
nak, auk ziran:

1) Federearen batasuna;

2) Apaizgoa;

3) Itxaropenaren Teologia; kris-
tau fede ta gizatutasunaren etorkizu-
na;

4) Kristau-oiuren konturamena.

Ta urtearen bukaera-lana bezela,
Ostegun Santuz, Aita Santuak bere
«Missale Romanum» izeneko litur-
ji-gutuna zabaldu zigun.

Leku batzuetan, artean atzerati
zeudela, ta liturgi berriaren asiera
ateratu egin zan; baia azkeneko
leku guzietan legetu da Meza Be-
ria.

Joan dan urtea, oparotsua izan da
Elizarentzat. Kristau erriak izan du
bitarte orretan ebarritze argia.
Aurtengoak ere erakutsiko al-digu
artu diran erabakien ondoren eta
emaitz ugaria.

E. N.

BARCELONA - tik



BARCELONA'KO EUSKELDUNAK

nai zuten eta bidezko zan bezela,
bear diran baimenakin, astean bein

MEZA SANTUA EUSKERAZ

emango da, eta zuk entzun dezakezu,
Lestonnac Ikastetxe Nagusiko Eleizan
(C. Aragón, 284)

Egun eta ordua:

Illeko lenengo igandean: eguerdiko, 12 - tan.

Beste igandetarako: aurreko illuntzean, 7 - tan.

Meza-emalle ta zuzendari: Aita Zubizarreta, Karmeld.
Aven. Generalismo, 424 - Tel. 227 14 86

Ara emen Barcelona-ko euskeldunak egin - eta zabaldu dituzten orritxoetako bat.

arte bisigotikoa gipuzkoa'n ? (IV) bataio - ontzi bisigotikot bat

Gaur beste gauzatxo bisigotiko bat ikusi bear degu. Ez, ordea, Gipuzkoa'n, Bizkaia'n baiziki; bañan orri bai, Gipuzkoa'ko bisigotiko auzierentzako argigarri izan liteken gauzatxo bat.

Gure lenengo bi artikulotetan, Gipuzkoa'ko bi gauza bisigotiko ikusiak ditugu; biok Bataio-galetakoak: bi Bataio-pontea: Ormaiztegui'koa eta Idiazabal'koa. Irugarren artikulotuan, Naparro'ko, sinboloz beterik dagoen irudi bikain baten bitartez, Ormaiztegui'ko Pontearen sinbologia argitu degu. Gaur ere bide berari jarraituz, Bizkaia'ko beste bisigotiko-gai bat aipatu bear degu, leengo Bataio-gai ura bera — bisigotiko Bataio-gai — argituz.

Gaurko ikusgarria ez da Ponte bat; Bataio-ontzi bat izango degu. Ontzi bisigotikoa, Bizkaia'n artitua; Mañaria'n, koba-zulo batean. Gaur guzti oiek zerbitu argi ekarri bait lezateke gure arrira.

Ontzia —ikus edergarria— pitxertxo bat da, ontzi luzekoa, poliki talutua, naiako artez egindakoa; brontzekoa; beste lekutetan Bataioa-ko erabilli izan diran zenbait ontziren berdiña.

Bizkaia'n artitua, esan degu, Mañaria'n, koba-zulo batean...

Ba dakigu, Araba'n, Trebiño-aldean, bisigotiko-aztarrenak naioko ugari artitzen dirana. Gure Bataio-ontzi orri inguru aietan artitu izan balitz, etzan artitzeko gaiza izango. Bañan Mañaria ez bait dago, ez Trebiño'n ez inguru aietan ere; Bizkaia'n biotz-biotzean baiziki.

Orixe da ontzi onen interes bereiztan bat. Bizkaia'n biotzean artitua izatea; Ormaiztegui ta Idiazabal Gipuzkoa'n biotzean dau-din bezela. Gai ontan irurak ber-din, irurak alkarri argi-egiten diotela.

Koba-zuloan artitu izanak ere ba du bere interes berezia. Interes ez txikia, Euskalerriaren kristautzearen asierari buruz.

Ikustagun.

Arestian aipatu ditugun Trebiño-inguruko bisigotiko-aztarrenak, koba batzuek dira, ain zuzen. «Trebiño-diog»; bañan obeto esateko, Araba'k Errioxa'ekin eta Burgos'ekin duan mugaren ingurua da koba onen lekua: Markin'itik asi, eta Laño ta Faldio'n barrena, Pinedo ta Korro'raño... Azkeneko bi oiek Baldegobia'n bait daude.

Alde bat dagola, ezik, koba aien eta Mañaria'koaren artean; Mañaria'koa, berezko troska da, berezko koba; Araba-inguruko aiek, berri-gizonak eskuz egindakoa. Bañan, nola-nai dala, danak, kobak; eta, nola-nai dala, batzuek eta besteak, gure antziña-antziñako kristautasunaren aztarren argi-argiak.

Araba'koak, antziña-antziñako ermitaio bakartiak —ala nola Kogolla'ko San Millan bat, eta Armentia'ko San Prudentzio bat— bizi izandako leku bisigotikoak dira. Bisigotiko-garalan gure Santuak kobaetan bizi izaten, alegia... Eta ikusten denez, antziñate artan Bizkaia'n Bataio Santua ere kobatan eman oi. Ala dira itxurak.

Antziñate aundi artan gure kristautasunak, oraindik, kobatarako go-

go eta iritzi, kobatarako joera zeukan.

Gure txarrotxoaren historiari dagokionez, Mañaria'n, Iturrietako koban artitu zan, orain 50 urte. Koba orri Mañaria'ko marmol-arrobietan dago. Kamirugatarren etxe aurre-aurrean. Arkitze orren zenbait zertzelada, Anai Berriotxoaren lantxo batetik jasoko degu (1).

Onela dio Anai Berriotxoak: «Mada-riaga'tar Andre Nikasia, Kamiruga-ren alargunak erreagil-egirik, orain sartu da, betiereko, Bilbao'ko «Museo Arqueológico-Etnográfico»-an, brontzeko txarrotxo hispano-bisigotikoa; bataio-ontzi; gi-zaldi onen bigarren amareunean, edo irugarrenaren asieran artitua, Iturrietako marmol-arrobietako koba batean, Kamirugatarren etxe-aurrean, Mañaria'n.

«Olako gauza bat Euskalerriar artituek, garrantzi aundia du benetan, gure Kristautasunaren asiera zaarra artitzeko. Garrantzi aundia gure Kristautasunaren histori-kontan, arte-kontuan, ain aundirik ez izan arren.

«1660 zentimetro ditu luzean; gaur ez du esku-lekurik; uzta batzuek bai, ontziaren erdi-aldean, aietako bat txarroaren lodi-unean.

«Euskalerria'n oraindiano ez da au besterik artitu era ontako bataio-ontziarik. Españi'lar zabalean, bai, artitu izan dira; eta gortetzen ere dra, dala Bartzelona'ko «Museo Arqueológico»-an; dala Sarria'ko Jesu-lagunen Museoan; dala dute benetan, zer-ikus ta zer-Madrid'eko «Museo Arqueológico Nacional»-en; dala León'ko «Museo Arqueológico» eta «Comisión de Monumentos»-en; dala Madrid' en, «Valencia de Don Juan»-en; dala deritzan Institutoan; dala Londres'ko «British Museum»-en; dala Ko-

lonia'ko «Kunstgewerbes Museum»-en.

«Gago Rabanal'ek ere ezagutuerazi zuan beste bat; bañan gaur galdut-izat jotzen da.

«Españia'ko arkeologi-zale zenbaitzuek ikusi eta aztertu dituzte ontzi interesgarri auek; ikus olakoen lerro au; Pedro Piel Salas —«Bosques hispano-visigodos de origen mediterráneo»; I. «Jarritas y patenas litúrgicas»; Madrid 1952. Edit. «Consejo superior de investigaciones científicas»; Martín Almagro Bach. Nota: «Ampurias» IV, (1942, 227-228; Mario Grande Ramos «La gran aventura del hombre sobre la tierra de Vizcaya» «El Correo Español» «El Pueblo Vasco» de Bilbao 1957-VII-27; 1957-VIII-2; Antonio Aguirre Andrés: «Materiales arqueológicos de Vizcaya» Bilbao 1955, 205-207.

«Oietaz gañera, orain amar-amabitu urte, Bilbao'ko «El Correo Español» «El Pueblo Vasco»-n agertutako beste lan laburtxo bat.

Gauza guzti auek garrantzi aundia ematen diote gure Mañaria'ko bataio-ontziari. Orrenbeste Museo-tan gorde izanak, orrenbeste ta orrenbeste lan idatzierazi izanak. Eta batez ere, batzuek eta besteak, guztioak, ontzi onen bisigotiko-zaera aitortu izanak.

Bisigotiko-zaera au, guretzat, kobatean artitu izanak ere asko artitzen eta indartzen du. Kobak, gure kristautasunaren asierarekin zer ikusi ta zer-esan aundia bait esan, ondo azterteaz merezi duana benetan.

Bañan gauzaren beste alderdi au, urrengo artikuluan batean ikusiko degu, Jaungoikoak ala nai badu.

LEKUNATAR MANUEL'EK



Bataiotarako pitxer bisigotikoa

(1) «H. Berriotxo —El jarrito de ritual visigodo de la cueva de Iturrieta de Mañaria» —«Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» XIV (1956) 454-455.

ESKRITORE IZAN NAI...

«Eskritore izan nai nuke... Zerbait esan zaidazu», dio karta batian gazte batek.

Beraz, eskritore nai dezu izan? Bokazioa bear orretarako. Eta ez gañera nolamaitoa. Barren-barreneraño itxitsia. Bokazio argia. Bate-re dudarik gabekoa.

Ez desula opizirio otrekin aiso irabaziko bear diut esan aurren-aurrentetik. Debaldeko lana pranko egin bearreko opiziriua. Askoz geiago irabaziko dezu beste edozer eginatalan.

Gure artean askotan gertatzen dana gañera. Trotxolatzat sarritan artuko zaitue. Gañera, sentimentu eta biguintasuneko gizona izango zera seguru asko, eta makinabat aldi desprezioak aditu edo nabaituko dituzu inguruan.

Politikakin batere konpromisorik gabekoa bear dezu. Eskritore izan nai eta politika ezin ditzeke uztartu.

Eskritore izan nai eta edozein klaseko politikakin konprometituta egotia, ezin ditekene da inuidik ere.

Zure buruaren jabe bear dezu. Obeto esateko: zure buruarekin bakarrik konprometitu.

Eskritoreak dezaken utsegitik aundiena politikako artu-emanetan sartuta egotea da. Edo bata edo bestia. Bide bat bakar-bakara eskeintzen zaio eskritoreari. Beste danak galbidezkoak dira bere opiziorako. Libidetea gaitzen bait du.

Bide luzea oso eskritorearena. Bide latza. Bizi zeran arte, aizen orduaroko kaminioa.

Bide ori bakar-bakarrik bearko dezu ibilli, zure kontzientzia lagun dezula.

Liburu batian esana naiz. Inor ez dagola mundu onetan eskritoreak aia kontu Jainkoari eman bear dionik.

Lagun guzti oso izango dituzu. Esku bakarrekote beatzak geiegi izango dituzu egiazko lagunak inguruan kontatu al-izateko.

Itxuragabekeriak entzungo dituzu makinabat. Zenbaitak errotzat ere artuko zaitue.

Bekaitzaren, inbiriaren ortzakadak ere bai sarritan. Ez bait dago inbiriya disimulatzerik. Inbiriya duanin inbiriya daukala arpegi-arpegian azaltzen du.

Eta au bai dala zaila ikasten, bañan bestearen esanari kaso guzti. Zuk, eskritore nai dezun-gazte orrek, jarrai beti. Jarrai bakar-bakarrik.

Ordainsariak, satisfazioak ere izango dituzu noiziki-beinka. Gutxiña pensatzen dezunian agertuko zaizkizu oso aparteko adixideak. Gutxiña usteko dezun lekutik.

Eskritoreak ez bait daki bere lanak noraino iritxiko diran. Orre-gatik bere erresponsabilidades ikaragarria.

Ez zaitzeza bildurtu nik oraindiano esandakoakin. Egiazko bokazioa badezu, ai lanari. Jaungoikoak lagunduko ditu. Inortxok ez dezake esan noraino iritxiko zeran. Besterik ez diut esango. Jarrai.

Bear-bearekoak ditugu gaur eskritore onak...

loré de Arceles

Iturriotz Erraimun, Olaberri'ko semea

Argentina'n euskarari asko ditugu. Euskaradunak ez aintxe, lekera auzi-digok bestea iresten. Bai ta: non-nai euskal aizenak. Irigoien, Urkiza, Olazabal, Izaguirre... Buenos Aires'en urrutizkin-izendegia leki lo-ditan dute. Ieki bakarrekota gize-na izango litzaiteke. Begira asi nintzan... Ua AGUIRRE saila!!

Mar del Plata'n, beriz, Kaperotxi-pli margolariaren erakustuki ugari ederra! Aintab eta aintab puxka begi-bategarri! Kaperotxi-pli bera ereak izan aundiko! Aren adixideak erakustuki artara daramazkitenak txia bikañak. Kaperotxi-pli, nerman txapela aunditxo luiditu zitzaion. Toki bat baño gelatogan zabalegoak izaten dituzte.

Mar del Plata'n gizon langille auxe upetu niki: ITURRIOTZ Erraimun. Olalaia. Adixide zintzoa. Begiak urrutia zabaltzen dizkigu.

Eta, 1968-garren urteko irailaren len-egunetan ZENDOIA'tarren etxetik aurrera eraman nindun. Goiza oxkiri. Aurreko egunetan ekaitza izan gendun. Elurra bai Elurra ez! Orra: une laburrez, elur-busti antza.

Iturriotz'ek, alderdi aietan, itxasoaren etzean ondartzat soilak nabitu, noski. Olaberri'artartean antziñako gipuzkoarren sena odollean izan. Muño iraulurik aiek mend tinto biurtu edo nai... Zer egint? Nola asma? Ze-

rak ere-erakoak sortzen. Orrela gal-litutako muñoak, Iturriotzen begi-digok maitagarri gertatu. Lenbizi-ler-bakiak eratu. Ondoren lerondro gatzek araa daramatzi eta sallean sartu. Aizeak bere zakarrean okerril egin ez dezan, ler-ondotxoak be-larrez babesten ditu. Obeto esan: belar-onduz azpia botaltzen. Alegia, urrutigotik ebakita belarra ekarri, eta landarea babestu. Lan luzea! Babeste ori oso bearezkoa izan. Bestela aizeak pillatuko ondarrak ittoke liz-kioke.

Muño-muño ibili ginian blok. Ze-gintzan lan aundien edertasuna erakutsi nai zidan. Neroni ere pozik nenbilen. Zerbait ikasteko gogoz.

Itxas-ertz artan aizea bai uxtu bi-zikoa! Patagonia baño beaeragotik, erderaz Antartiko derizalaonetik zetorren. Aukeran otza. Mexiko'ra orduko berotuko zan, agian!

Iturriotz'en lanak, auxe lo-muga: aize zakar orri malatua eraiki. Baso itzaltsuko esi atsegingarria. Zendoiarren mugatik asita la Nekotxa'raño. Alderdi aietakontatzat irabazi opagarria.

—Azitzen danean egurra zertara-ko zenduoke?

—Ongi-olotako eskudunekin izke-tan asia naiz. Laguntza ere golenbat aietek dalaideat. Neronen indar utsez aintbesteko zillarketa osatzea askitxo bait-nuke.

—Ingi-gaiak erbestetik al dakaz-kite?

—Nik zer esango dizut? Beaerago-ko kalan laister ikusiko degu: emen-goek garia saldu nai. Eta erosleak,

Sueci'tik beintzat, egurra bialdaz ordaintzen dute. Bertako ogasun-erakundeak, olako kidegotza irabazi urrikio dala diote. Egurra emen ere izan dezakegula. Olaxe asi nintzan ondartzat auxe iazten. Dakuskezunez utsetik orrenbestera iritxi al izateak poz ematen dit.

Ingiuntzakoek ere aldian bein etortzen dira. Lengo mendixka soilak basotzen asi dirala ikustek aientzat ere itxarokizun.

—Olako lanak Gipuzkoa'n ere egin zenezakeen...

—Ala izango da! Ala izango da!! Etorri ginian, ordea, ta!...

Nekotxa'runtz abitu ginian. Len-txegoa, kala. Ontziak garzitan. Ale-tegiak zerrendan. Anora'ha ote nintzan iruditxo zitadan. Aietegit aiek ke-mototsik gabo zirela ezik. Baz-kaltzeko aserita, aurre-aurrean TA-BERNA ELAS... bañan, eladerazko iz-kiz. Idazkun uia nok urletzetoket!

Iturriotz' ez er nion galdetu. Egi da bai! Argentina'n enda guztia-koak ikusi litzeke.

Nekotxa'n ondartzan inor ez. Udan besterik izango da, noski!! Il-beteezan eta otsaillean batez ere.

Egazi bular-zuri motela antxe ze-billen. Bakar-bakarrik! Nondik ote-zetorren? Aizeak ondar-pilla poltak zeuzkan aginik, udazalerik otzalaiko. Egazi moko-zabal bular-txuri bak-riak, Argentina'n alderri ibili oi di-ran aintbeste euskaldun gogoratzen neri!! Zenbait ote? Gerok ere ez da-gu! Bañan, iakiteak zertxo asko erakutsiko litzikiguke!!

ETXEBERRIA'TAR P.